


ou dérivé dont le second élément commence précisément par *j*,¹ ou que le mot est emprunté à une langue étrangère, ou bien encore qu'il s'agit d'un *j* adventice propre à certains dialectes.

(A suivre)

H. GAVEL.



ESKUAL-HERRIKO HEGAZTINAK

ETA CHORIAK⁽²⁾



GAUZA bat omen da bakarrik munduan ikus ez ditakeena : gatuaren beharrian saguaren kafia. Nihor ez da beraz harrituko bi adichkideek, elgar beroturik, chedea hartu badute hemen gaindi dabiltzan hegaztin eta chorien beren herritarrerri ezagut-arazteko. Egia erran, orai arte

¹ Tel est le cas dans le souletin *arrajin* « revenu », formé du préfixe *arra-* (emprunté au béarnais *arre-* et exprimant une idée de répétition, et de *jin* « venu »

(2) Nous prions le lecteur de noter que, comme dit le chanoine Harriet dans son dictionnaire manuscrit, à propos des noms d'oiseaux, « il est difficile même dans un cadre restreint de rendre exactement en une langue étrangère plus savante les différents noms imposés aux oiseaux par les divers dialectes basques ». Il y en effet à cela une double difficulté.

1^o) Plusieurs noms, suivant les dialectes, sont appliqués indistinctement au même oiseau, d'où de fréquentes confusions. Nous connaissons ainsi au moins au moins une dizaine de noms, et plusieurs espèces de rapaces tels que busards, faucons de différentes espèces, milans, eperviers sont confondus suivant les localités et les dialectes, sous les noms : *belatz*, *chafacha*, *zapelatz*, *sapalaitz*, *azora*, *haztore*, *miru*, *mirotz*, *kapelari*, *belaoiz*.

2^o) Le même nom, d'autre part, désigne quelquefois des oiseaux différents et cela même dans des localités voisines. Pour n'en donner qu'un exemple : *Belatch*, qui signifie corneille à Ustaritz, veut dire épervier à Larressore et à Itxassou.

On remarquera également par la suite que les noms simples comme *bele*, *arrano*, etc. . . . ne sont pas très nombreux et que, pour le reste, les noms

Eskualdunak bizi izan dire jakitate hori gabe eta ez da dudarik gero ere biziko zirela. Bai, bai segurki. Bainan jakitate gehichagok galduko othe ditu ? Guk ez uste. Doala beraz lan hau herriz herri, etchez etche. Nor edo nori atsegin egin dezola eta horra hainbertze urrats, solas eta buru-hausten saria guretzat.

Bertzalde, nork daki ? Lan hunek ez othe dio norbeiti gogoratuko harek ere zerbeit egin behar duela ? Eta hola, lan bati bertzea darraikiola, gure Eskuara emeki-emeki aberats ditake. Egunetik egunerat galtzen ari baita, eskerrak Jainkoari bihur ginetzozke, egungo deus guti balio duen lan hunek pindar bat igorririk, Eskuararen alderako sua bihotzetan phizten balitz. Eta hala izanen da agian.

D. eta E.

Harrapariak-Rapaces

SAIA. — VAUTOUR FAUVE (LE).

Eskualde gehienetan Saia erraten diote erdaraz « vautour fauve » deitzen den hegaztinari. Bizkitartean izen hori ez du arras berea : hola deitzen ahal dire horren heineko hegaztin harrapari guziak. Hala diote bederen beren hitztegietan Larramendy gipuzkoar eta Harriet lapurtarrak. Hortarik doala, nahiz arrano beltza erraten dioten Saran eta Azkainen delako hegaztinari.

d'oiseaux sont formés d'un de ces noms simples ou plus fréquemment du nom général « chori » accompagné d'un terme suffixe ou préfixe ayant trait aux mœurs, à la couleur, à la nourriture, ou à l'habitat de l'individu qu'on entend désigner. Par ex : sagar-chori, mésange : Itsas bele, cormoran : Arrano gorri, gypaete.

Enfin, malgré tout le soin que nous avons apporté à ces recherches, nous nous ne nous flattons pas d'avoir fait un travail complet et sans erreur. Nous serons très heureux que les lecteurs de « Gure Herria » s'y intéressent et nous fassent profiter des observations que leur lecture leur suggérera. Qu'il nous soit permis de remercier ici tous ceux qui nous ont aidés de leur expérience et de leur savoir, et en particulier M. Prestat, conservateur du Muséum d'Histoire Naturelle de Bayonne, dont le *Catalogue des Oiseaux sédentaires et de passage dans le pays*, mis obligeamment à notre disposition, nous a été particulièrement précieux.

Hemen gaindi dauden hegaztin handienetarik da saia. Ez da ezagut-errechagorik bere buru eta lepho larrutuekin. Hilcian bizi da, biziari arras guti lothuz. Biziari lotzeko, ezinbertzea behar du eta gosea arras nausitua. Orduan ere nahiago omen du sendoa baino eria. Deusik etzaio ardikia bezen on.

Harroka zilhoetan egiten du ohantzea saiak eta, umeak ditueno, ez da errech handik athera-araztea ama. Bainan ez da batere egia, umeen zaintzeko, nor-nahiri buru eginen diola. Hein batetik goiti, atchetchando ihes egiten du saia bihotzdunenak ere eta demboraren buruan baizik ez da gero ohantzerat itzultzen.

Bada bertze saia mota bat ere, erdaraz «vautour moine» deithua. Bainan ez da hainitz ageri hemen gaindi : noizetik noizerat Larrunen eta Artzamendin, bai eta Baiguran, uda aldean, bat edo bertzeri ohartzen bazazkiote ihiztariak, hil arte ez diote bakerik utziko. Hegaztin harrapari bat baita Azkaindar, Saratar eta Beratarrek «arrano urdina» deitzen dutena, hau dela uste ginuke, bere moko bazterreko eta kasko-lephoetako larru urdinskarekin.

SAI-ZURIA. — PERCNOPTÈRE (LE).

Ez da behinere gure mendietarik urruntzen sai zuria : Mundarrain eta Urtsuian guziz, urthe buru batetik bertzerat ikus ditake. Luma arruntean zuriska du, salbu hegal puntetan, adin batean bederen. Hilcian bizi da sai zuria ere eta itsasoak abere hil bat leihorrerat aurdikitzen duelarik hegaztin hunek bere mendietarik usnatuko du eta aztaparretan harturik eremanen harroka tarte batean jateko.

Saia baino tipiago da, puskatto batez bederen.

ARRANO GORRIA. — GYPAETE BARBU (LE).

Eskual-Herrian ikus ditakeen hegaztin harrapari handiena, arrano gorria da. Urthe buru batetik bertzerat Peña Platan eta Larrunen, buruz buru egin ditake, ezen

gizonaren gatik ez da hainitz kechatuko eta aise bere zokhoetarik urrunduko. Noiztenka zelhaietarat ere jausten izan behar da, ezen, gure jakinean, 1889 eko Maiatzaren hamarreen bat bizirik artean atchegan zuen Sempertar batek, etchetik hurbil. Buruan eta lephoan baditu luma luze batzu, bethi aise ezagutaraziko dutenak : mokoaren azpian bizar beltz bat ere ba.

Badire artzainak hainitz hoben arrano gorriaren gain ematen dituztenak : arrano gorriak ez ditu segurki aski aztapar azkarak ardi bat hartu-eta eremateko. Bertzalde hilkia miletan maiteago du : guzien gainetik hezurra zaio on. Harroka zilhoetan egiten du bere ohantzea arrano gorriak abar handi batzuekin, erdian ileki zerbeit ezarririk. Gero han arroltze bat erruten du, noiztenka biga : behinere gehiago.

Chuberoko aldean, « ügatza » erraten diote arrano gorriari.

ARRANO. — AIGLE ROYAL (L')

Arrano guti ikusten da gure eskualdetan, baina hartako doia agertzen da halere Iratin eta noiztenka bederen Ustaritzeko oihanean, Prestat izena duen Baionako jaun jakintsun baten arabera. Bere begi tzarretik nor-nahik ezagutuko du arranoa. Hegaztin hau da egiazko artzainen etsaia : hunek ditu bildotch handienak aztaparretan bizirik hartu-eta erematen. Badire haurrak ere ereman dituzten arranoak. Hilkia ez du maite hegaztin hunek, edo arras guti.

Maizenik harroka handi baten puntan egiten du bere ohantzea arranoak. Umeak larrituche dituelarik, aztaparrean harturik iguzkiaren ondo-ondorat erematen omen ditu, hango garrean begiak erre detzaten. Orduan aztaparra idekitzen du eta umeak uzten, doazila nahi duten lekurat. Liburu Sainduetako errana da hori.

Erdaraz « aigle royal » deitzen den arranoaz kampo,

badire bertze hirur bederen « aigle impérial, aigle à queue barrée, aigle botté » deitzen direnak, baina mirakuilu da kasik horiek hemen gaindi ikustea. Horrengatik badakigu « aigle botté » horietarik bat Baionan hil zutela, duela zenbeit urthe, Santizpiritetako gainean.

ITSAS-ARRANOA. — BALBUZARD FLUVIATILE (LE).

Mendietakoa baino tipichago da itsas-arranoa eta luma ere churichago du. Ez da ur hegietan baizik ikusten: ez bethi, hargatik. Arrainkian bizi da: lutchoak eta amorroinak bertze arrain guziak baino maiteago omen ditu.

ARRANO NABARRA. — CIRCAETE JEAN LE BLANC (LE)

Oihan handietan kausitzen da hegaztin harrapari mota hau: arranoaren heintsukoa da: bizkarrez arranoa bezalatsukoa, azpia zuria du tita ilhun batzuekin. Zangoak horiak ditu, moko urdina. Zuhaitzen puntan egiten du bere ohantzea, bi metra zabal duen ohantze bat. Urthe guzia gure eskualdetan iragaiten du arrano nararrak

APOBELATZA. — BUSE VULGAIRE (LA).

Gure eskualdetan bada hainitz apobelatz: badire zurisak eta badire arras ilhunak. Baina hemen gaindi gehienak gainez belskoak dire, azpiz argiago. Baginaki zer ongi-egilea dugun apobelatza, sekulan bat ez ginezake hil. Hainbertze sartzuri, sagu-itsu, apho tzar eta suge gaehto jaten du! Sugeak buruaren gainean phikoka hiltzen ditu, lo daudelarik, eta gero oso osoa iresten, burua lehenik. Noizetik noizerat chori ttipi bat edo bertze garbitzen badu, barka dakioko apobelatzari.

Gipuzkoako aldean hegaztin huni « gabirola » ere erraten diote « buzoka » ere ba hainitz aldetan. Baina, gure artean errateko, ez othe diozue « buzokari » erdara usain handisko bat kausitzen, apobelatza utzirik, hartzeko?

Bada bertze apobelatz mota bat « buse pattue » erdaraz deithua, zangoak aztaparretaraino ile luze batzuez estaliak dituen, baina ez da noizetik noizerat baizik Eskual-Herrian ikusten. Gaineratekoan bertzea bezala-bezala bizi da,

MIRU-ZURIA. — MILAN ROYAL (LE)

Mirua ezagut-errecha da airean: noiz nahi hegialak batere mugitu gabe ibiliko da. Zuria deithurik ere ez da batere hala: herdoil kolore litake hobeki. Buztana aski luzea du bi bazterretan, erdian laburrago. Eskual-Herrian mirua ez dugu maite eta edozoin emazteri haren berriak galde baginetza, badakigu zer adituko ginuken: kalte hainitz egiten duela. Eta hori noizetik noizerat chito bat edo bertze aztaparretan erematen duelakotz! Badakigu bertzerik ere egiten duela: chori tipi frango ere jaten duela. Baina arruntean kalte baino ongi gehiago egiten du miru zuriak, suge eta apho hainitz garbitzen baitu.

Urthe buru batetik bertzerat ez da hemendik urruntzen miru zuria: bada bertze mota bat, miru beltza, erdaraz « milan noir », hunat Martchotik Buruilerat agertzen dena. Laño-laño aithortuko dugu ez dugula miru zuria bezala ezagutzen. Ez dautzuegu beraz erranen ongi ala kalte egilea den.

Chuberoko aldean, ülhan̄tcha erraten diote miruari eta ez othe da izen hori gurea baino eskuarago?

CHAFLACHA. — EPERVIER ORDINAIRE (L')

Chaflacha da chori tipien etsaiik handiena: karioletan ikusten dituen ere jazartzen da-eta. Buru hortarik kalte handiak egiten ditu. Baina erran behar da ere frango suge garbitzen duela. Arras goratik lurrean ikusten ditu eta orduan, chuchen-chuchena, chimichta bezen laster gainerat eroriko zaiote phikoka hilik eremateko.

Kasko eta bizkarra ilhunskoak ditu chaflachak: azpis

zuriska marra gorrasta ilhun latzuekin. Harra baino handichago da emea, baina handiena ere mirua baino puskatto bat tipiago. Hemen egoki da urthe buru batetik bertzerat. Badu chaflachak bertze izenik ere: belatza, zapalatza eta esparbera. Baina esparbera ez othe da erdaratik heldu, arraina uretik bezen chuchen? Gipuzkoan belaoiza ere erraten omen diote.

HAZTOREA. — AUTOUR ORDINAIRE (L').

Hegaztin hunek badu chaflacharen planta handia, baina larrriago da eta ez da urthe guzia hemen egoten. Udan oihan handietan ikus baditake, neguko norapeit itzalia da. Chori handi eta tipieri arras aise jazartzen da, baina guzien artean usoak hautatuko ditu. Eta ezid asea omen da. Zuhaitz gorenetan egiten du bethi bere ohantzea arbasta gothor batzuekin.

MIROTZA. — FAUCON-PÈLERIN (le)

Mirotzari hainitzek falkoina erraten diote. Zertako har erdi erdara den izen hori bat arras eskuara badugularik? Gainez ilhuna da mirotza, azpiz zuria marra beltz batzuekin. Hegalak buztan puntaraino heltzen zaizko: hortarik bethi aise ezagutuko da. Urthe guzia hemen egoten da mendian eta oihanetan. Epher jale handia da: erbiak ere on zaizko. Bat usna duen lekutik ez da hainitz urruntzen. Horrengatik 1895 ean Ereiaroaren hamaseian Iguinitz izena duen Eskualdun batek Baionako eliza nausiaren dorrearen puntan tiroz bat hil zuen. Etxabilan bada han epher edo erbi baten ondotik!

Chichparik etzen demboretan ihiztariek mirotzak ede ki hezten zituzten chori ihiziko. Choria airean harrapatu eta, mirotzak chuchen nausiarri ekartzen zion. Holako mirotzez artha zaukan muthila, mirotzaia deitzen zen.

BELATZINGA. — HOBÉREAU (LE)

Primaderan eta udazkenean nun-nahi kausi ditake belatzinga. Mirotxa baino tipichago izanagatik, ez litake errech hartarik berechtea, mokoaren bi sahetsetan bizar beltz bat ez balu. Chori tipiak arras maite ditu: allardak halere bertzeak baino nahiago. Ezinbertzean bakarrik lothuko da mamutcheri eta guziz larrapoteri. Zuhaitzetan eta harroka zilhoetan egiten du bere ohantzea. Haitz-choria bardin erraten diote leku batzuetan belatzingari.

MIRUCHKA. — CRÉCERELLE (LA).

Hainitz eta hainitz miruchka bada hemen gaindi: chorieri jazartzen den hegaztin harrapari ttipiena da. Emea baino tipiago harra. Ez da urthe buru batetik bertzerat hemendik mugitzen. Nun-nahi bardin aise egiten du bere ohantzea: zuhaitzetan, harroka zilhoetan, dorre zaharretan. Bardin deitzen da kapelaria. Bada bertze miruchka mota bat erdaraz « émerillon » erraten diotena. Hein berekoa da, bardin bizi, baina ez da menditik zelhaietarat neguan baizik jausten.


ITSAS-MIROTXA. — FAUCON ISLANDAIS.

Arras zuria da itsas-mirotxa. Bethi itsas-hegiz itsas-hegi dabila, arrainkian bizi. Baina ez da maiz gure esku-aldetaraino heltzen: iphar aldeak maiteago ditu, han gaindi arrain gehiago delakotz naski. Horrengatik batere ez da mirakuilu hemen gaindi ere, lur barnetaraino, bat edo bertze kausitza.


(Helduden aldian jarraipena).

L. DASSANCE eta J. ELISSALDE,

Ustaritzekoak.



ESKUAL-HERRIKO HEGAZTIRAK ETA CHORIAK



Gau-chori harrapariak

(Rapaces nocturnes)

GAU-CHORI harrapariez mintzo diren erdal liburuetan, zer irakurtzen dugu? Bederen zazpi gau-chori mota badirela. Eta arruntean Eskualdunek izen bera ematen diotegu zazpieri: batzu ta bertzeak, huntzak deitzen ditugu Lapurdin, batzu-ta bertzeak, kahekak edo kahakak deitzen dituzte Chuberoan eta Amikuzen.

Zazpi motak ongi eskuetan ibili-eta, huna zer dirudigun, guri: guzien buruan bi mota direla bakarrik, errechki bat bertzetik berrech ditazkeenak. Bat, beharriduna, maiz oihanetan bizi da: erdaraz, «hibou» eta «duc». Bertzea, beharririk gabea, maiz harroka ziloetan, etche zaharretan edo eliza dorreetan dago: erdaraz, «chouette». Eta, asko ihiztari zaharrekin elhe eginik, asko hiztegi zahar ikerturik, uste dugu hau kaheka deitu behar dutela, Eskualdunek: hura aldiz, huntza.

KAHEKA. — CHOUETTE (la).

Arras gure eskualdetako hegaztina dugu kaheka eta ez da behinere hemendik urruntzen. Egia erran, hemen

bezala bertzetan ere bardin lakhetua da. Ez dugu cheheki bederen nolakoa den erran beharrik: guziek ezagutzen dute, haurrak zirelarik, beren eliza zaharreko dorrean ichilka eta gordeka sarturik, han hainbertze aldiz ikusi dutelakotz: ikusi, atcheman, eta hil.

Bizkitartean, hegaztin guzietan gizonak ez du kaheka baino adichkide hoberik. Lo gauden demboran, kaheka lanean ari da guretzat, lanean kasik gelditu gabe. Zenbat sagu, arratoin, sagu itsu, eta sartzuri ez du gau guziz garbitzen! Ez ditake asma ere.

Eta, horrengatik, gizonak ez dute kaheka begi onez ikusten eta ahal duten guzian, gaizki egile handiena bezala, hilen dute, gero athean dilindan emateko, sorginak urrunduko dituelakoan edo berri tcharren mandataria delakoan edo guk ez dakigu oraino zertako.

Zenbeit eskualdetan, lehen « chori sorgina » erraten zioten kahekari. Zertako othe? Lehengoek ere uste othe zuten egiazki berri tcharren mandataria dela edo, Harriet aphezak bere hiztegian dion bezala, hola deitzen othe zuten bethi gauaz dabilalakotz, den gutieneko harrakotsik egin gabe, Akhelarrerat heltzeko sorginek ohi duten bezala?

Dena dela, deusek ez du astokeriak baino zailago bizia eta oraiko egunean ere huna zer den ikusten, Ostibarreko aldean, han sortu eta handitu den jaun aphez batek erran daukunaz. Eskualde hortan beraz, kaheka bat hiltzen dutelarik, berehala surat ematen omen dute, buztana ongi gatzaturik. Eta gero gatz hori suan zirtaka hasten delarik, guziak irriz: « Horra, horra nun doazingure berri tcharrak kamporat! » Berri tcharrak kamporat, . . . baj eta hainbertze sagu-itsu landarat, hainbertze arratoin ezin ase selhauruan bildua daukazuen arthorat, adichkideak!

Kahekaren arroltzeak bertze chori eta hegaztin guzietan baino biribilago dire, arras ezagut-errechak hortarik. Kaheka ez dute gizonak baino maiteago choriek: hain

itsusia delakotz dudarik gabe. Hortaz ederki baliatzen dire hameka ihiztari. Kaheka bat bizi ezartzen dute bi chiriren puntan, aira ez dadien zangoak ongi lothurik. Phentzearen erdian kaheka hori ikusi duteneko, edozoin chori tirritaka hasiko da bizirik larrutu nahibalute bezala. Oihu samin horietarat berehala inguruetakoko chori guziak biltzen direla, erran gabe doa. Orduan zer phazka chich-paren muthurrean!

HUNTZA. — HIBOU (le) (1).

Kaheka bezala arras hemengo hegaztina da huntza ere, eta hura bezen ezagutua. Burua baizik ez balu, bere bi beharri motz eta buruaren erdiko bi begi biribilekin, gatuaren planta zerbeit baluke. Kaheka bezen adichkide ona dugu huntza: harek bezala hainitz sagu, arratoin, sagu-itsu eta sartzuri garbitzen du gauaz. Ez ginioke beraz behinere minik egin behar. Bainan norbeit doala Eskual-Herriko haurren buruan horren sar-arazterat! (2).

Haitz-choriak — Grimpeurs

OKILOA. — PIC VERT (le)

Moko azkarra du okiloak eta mihi luzea, arras luzea: moko azkarra zuraren chilatzeko eta mihia luzea chilo hartan sarturik hango mamutchak eta chinaurriak biltzeko. Zerrena edo zuhaitzetako harrari ere gerla gorria egiten dio okiloak.

Nor-nahik aise ezagut dezake hegaztin hau buztaneko

(1) Harriet aphezaren hitztegian bertze izen hau ere ikusi dugu: *Gau chori aina*: *espèce de duc*. Ez ginuen egundaino aditua izen hori: nihun ez dugu ikusi. Bainan gure baitan gaude gau chori aina ez othe litakeen «le scops petit duc» Nihork zerbeit balinbadaki othoi mintza dadila.

(2) Kaheka bezala, berri tzar mandatari bat litake huntza ere hainitz Eskualdunentzat. Sinheste hori, egia erran, ez da egungoa, ezen huna zer irakurtzen dugun aspaldiko liburu batean: «Obs rvabam apud magnates uo-ribundos quod bubo eorumdem insederit cubilibus.»

luma azkarretarik, buru gorri eta bizkar pherdeskatik. Hargatik luma zuri hainitz badu bizkarrean, adin bat arte.

Zur ziloetan baizik ez du ohantzea egiten.

Adichkidea dugu eta ez da arras ezinbertzean baizik bihiari lotzen. Eskualde batzuetan «katachoria» deitzen omen dute.

MARTCHO-CHORIA. — DRYOPIC NOIR (le).

Okiloa baino handichago da Martcho-choria. Arrak kas-koa gorria du, emeak horiska: gainerateko luma beltza dute batek eta bertzeak. Okiloa bezala bizi da, baina bethi oihan beltzenetan.

OKILOGORRIA. — EPEICHE (L').

Okiloa baino ttipichago da okilogorria: burua eta azpia arras gorriak ditu: hegalak, churi-beltz. Okiloa bezala bethi oihanetan bizi da, harek bezala ohantzea eginez, harek bezala ahal dituen mamutcha, chinaurri eta zerrenak kilimiliklikean garbituz.

OKILOTIPIA. — EPEICHETTE (L')

Arras ttipia da okilo mota hau, kasik etchechoriaren heinekoa. Arrak burua gorria du, emeak beltza. Mokoak azkarra du hunek ere eta mihia bardin luzea. Ttipia da segurki gorphutzez, baina langile handia, bertze motak bezala. Oihanak gutitzen ari baitzaizkigu, zauriaren gainean piko ez egiteko, begira gaiten behinere okilo bat, handia izan dadien ala ttipia, hiltzetik. Zerrena ez dago geldirik, etsaiak ez duen oihanetan.

CHINAURRI-CHORIA. — TORCOL (le).

Den gutieneko bat biligarroa baino ttipiago ditake

chinaurri-choria. Luma, kolore guzietarik. Bethi, eskuin eta ezker dabilkalakotz bere lepho luzea, « chori erhoa » deitzen dute hainitz eskualdetan. Han-hemenka « malenkoniosa » ere erraten diote. Bainan izen hori ez othe zaio erdara hitz huntarik heldu : mélancolique ? « Lepitchulia » ere deitzen da. Ongi-egilea dugu chinaurri-choria. Jainkoak daki urthe buru batetik bertzerat zenbat chinaurri eta mamutcha tzar garbitzen duen ! Hortako du-eta hain mihi luzea !

Urrundik ere aise ezagut ditake chinaurri-choria, zuhaitzaren puntan kantuz hasten delarik : hamarbat « piuk piuk » lerroan gero-eta eztikiago egiten ditu eta gero berritz zenbeit demboraren buruan, lelo bera hasten « piuk piuk piuk. »

KUKUA. — COUCOU GRIS (le).

Izen hau ez dela eskuara erranen duteneri, berehala ihardesten dugu erdara bezen eskuara dela : hegaztinaren kantutik heldu da eta erdaldunek bezen beharri onak ditugu naski Eskualdunek ! « Kuku, kuku, kuku » nor ez du hemen gaindi ere ehunetan aditu ?

Alferra da kuku a eta bizkarkina : ohantzerik ere ez du egiten. Bere arroltzeak chori ttipi baten ohantzean ezarriko ditu, nihor ohartgabean, han sor ditezela umeak.

Ez dezogun kukuari minik egin, horrengatik : hainitz har eta pinpirina garbitzen du, behinere kasik bihiari lotu gabe. Har bat bada bereziki zuhaitzari kalte handia egiten diona, gorputzean dituen ile batzuetarik ezagut errecha : erdaraz « le processionnaire » : ez du bada har hunek kukua baino etsai handiagorik. Othoi, ez ahantz.

Ur hegiko bi chori

(Famille des Martins-Pêcheurs)

UR-CHORI GORRIA. — MARTIN-PÊCHEUR (le).

Othe da nihor, izenez ez bada, izanez lederen ur-chori gorria ezagutzen ez duenik ? Moko luze bat buru handi baten puntan, buztan labur bat, bi zangar motz, luma urdin gorri churi distirantenak, horra ur-chori gorria. Bai, segurki, ezagutzeko errecha da. Ur-chori gorriak ez du arrainkia baizik nahi. Zumelika adar batetik charbo bat edo bertze ikusten dueneko, vlicht, hain polliki pulunpatzen da !

Ohantzea ur hegiko zilhoetan egiten du : bainan, uste gabez, bat jada egina kausitzen badu, hura berehala hartuko. Lan egina maite ur-chori gorriak ere, hainitz gizonek bezala !

Hainitz eskualdetan « martin-arrantzalea » erraten diote ur-chori gorriari.

ERLEJALEA. — GUÊPIER (le).

Lephoa horasta du erlejaleak : azpia, pherde bizi : han hemenka luma urdin batzu. Baluke kasik ur-chori gorriaren planta zerbeit, guziz bere moko luze eta zangar motzekin. Izenetik beretik ageri da zer den chori hunen janharria : erle, liztor eta ulitchak.

Ez omen da iphar aldean bizitzen ahal : iguzkia behar du baitezpada. Hemen gaindi aski maiz ikus ditake primaderan eta udazkenean. itsasalde hortan.,

Donostian « erle galgarria » erraten diote. Egiazki hala balinbada, ez dugu erranen guk behinere etzaiola minik egin behar.

(Bertze aldian jarraipena).

L. DASSANCE eta J. ELISSALDE.

la Vérité qui est la Seconde Personne de Dieu, —
non pas une idée mais un être, l'Être, —
et qui s'est faite homme
pour habiter parmi nous.

Issy, 13-14 Juin 1923.

ANDRÉ MARCOU.



ESKUAL-HERRIKO HEGAZTINAK ETA CHORIAK



Bele Motak. — Corvidés (Famille des)

Aski larriak dire hegaztin hauk : handienak oilarra-
ren heinekoak, usoaren heinekoak ttipienak. Luma
beltza dute arruntean : luzea eta azkarra mokoak.

Erdal liburuetan haurrean ikasirik guziek badakigu
belea ederki zakuan sartu zuela azeriak aldi batez. Aldi
batez, baditake : bainan, ez bietan. Arras zuhurra da
belea : horra zertako ez den engana errecha. Mirakuilu
da bele bat artean hartzea : chichparen menetik ere
urrun dabila, bolbora usnatzen balu bezala.

Badire liburuak gauza hau finkatzen dutenak : beleak
ederki ikasten duela mintzatzen. Ez ditakenik ez da se-
gurki, bainan sekulan Eskualdun batek bele bati eskua-
ra ikasten badio, « Gure Herria » egun irakurturik, hitz
bat igortzen badauku, laster helduko gaizko ikusterat.

Hegaztinik ez omen da bere umea beleak bezala mai-
tatzen duenik. Arroltzeak ebasten bazaizko, berritz erru-

ten hasiko da. Bigarren aldian etsitzen omen du hargatik. !

BELEA. — CORBEAU ORDINAIRE. (le)

Guziek hemen gaindi belea ezagutzen dugu eta ez dugu maite. Badakigu-eta zenbeit sathor, sagu eta arratoin garbitzen badu, ogi eta arthoetan sarraski handienak egiten dituela ! Egun erain ogia eta ohart dadiela bele bat, bihar han da andana ikaragarria. Bertzalde hain zikhina da belea, mokoia bethi lurrez edo haragi ustelez estalia ! Hain karranka itsusia du ! Eta horien gainerat, ohoina mokoaren puntaraino ! Nunbeit ohart dakiola dirdiratzen duen zerbeiti, laster eta laster ebatsiko du eta gordeko. Gero, sekulasantan ez omen du ahanzten zerbeit nun gorde duen.

Huna , berri-berritan zer irakurtu dugun hortaz. Behin gizon batek omen zuen bele bat ttipitik etchean hazia. Aspaldi ohartua zen hargatik zer-nahi ebasten ziola. Bainan baitzakien nun zuen beleak bere gorde-lekhua ebatsi arau, guziak berritz etcherat biltzen ziozkan. Horra nun egun batez beleak bortz liberako zilhar bat ebasten dion. Guzien buruan zer gertatuko den ikusi nahiz eta ere horren gatik ez duela erreka joko bere baitan eginik, delako bortz liberakoa gorde lekuan uzten dio gure gizonak. Handik zenbeit egunen buruan, behi bat eritasunez etchean hilik, sekulako asean egin arazi zion beraz beleari. Huna loria ! Loriaren loriaz karranka gorrian ari zen-eta ! Azkenekotz zapart egiteko heinean belea urruntzen da etchetik. Aphur baten buruan, horra belea nausiari buruz airean heldu, bethi karrankaz ari.

— Zer dik horrek mokoan, dio nausiak bere buruari ? Zer zuen ? Ori, ebatsi bortz liberako hura !

Hortarik iduri luke belea ongi-egileari estekatzen dela. Batere. Egiozu beleari munduko ongi guzia, belea bethi bele, egun batez kampoa hartuko dautzu

« Zeren, zeren
Libertatea zoin eder den ! »

Noe zenak, uholdea zer heinetan zen ikusterat, igorri
zuen belea. Bainan belea ez baitzen berritz arkurat itzuli !

Eta ez erran baditazkeela bele batzu bertzeek baino
bihotz gutiago dutenak. Ez :

Tantiruri
Orok elgar iduri.

BELAMIKA. — CORNEILLE (la)

Herri zenbeitetan, hala nola Uztaritzen, « belatcha »
erraten diote belamikari. Uste dugu bertzalde gure zahar-
rek « erroia » emana ziotela izena, ezen huna zer irakurt-
zen dugun d'Oihenarten zuhur-hitzetan :

Erroiak beleari, buru beltz.

Dena dela, orotan hedatua eta ezagutua da belamika.
Belea baino ttipichago, arras haren itchurako da. Urri-
tik Martchorat, maiz elgarrekin ikusiko dire biak. Oi-
hanetan egiten du ohantzea belamikak. Aski mamutcha
jale handia da, bainan chori ttipiak ere arras eta arras
maite ditu, eta buru hortarik egiten du frango kalte.
Hiltzeko hobe da beraz.

BELATCHARREA. — CORNEILLE MANTELÉE. (la)

Huna bele mota bat noizetik noizerat bederen gure
eskualdetan huts egiten duena. Aipatu behar da halere.
Burua, lephoa, hegalak eta buztana beltzak ditu : gaine-
rateko guzia, zuriska da. Hortarik heldu zaio bere izena
ezen hemengo « grisa » eta Bizkaiako « arrea » gauza bera
dire. Mamu tzar hainitz garbitzen du belatcharreak,
bainan chori ttipi frango ere ba. Bertzalde zer kalteak ez
ditu egiten lur erain berrietan !

BELACHAGA. — FREUX (le)

Bele mota ttipisko bat da belachaga, moko ondoari behatuz aise ezagut ditakeena, larrutua bezala duela-kotz. Kalte hainitz egiten du mota hunek, bihi eta fruitueri arras aher delakotz. Mamutcha zenbeit ere jaten omen du hargatik.

Eskualde batzuetan « belerroia » erraten diote belachagari.

BELATCHAUA. — CHOUCAS (le)


Belatchaua dorre edo etche handi zahar bat den zokho guzietan kausituko da : hango hegaztina da. Etcheusoaren heintsukoa da. Ez du beleak bezen luma beltza azpian bederen. Beleetan bat balinbada ongi-egilea, denik ere hau da : hainitz sagu, arratoin eta suge jaten du, liburuek diotenaz.

Harriet aphezaren hiztegian bertze bi bele izen ere irakurtu ditugu : « beltzurda » eta « beltzarra » Hitz choil hauk ditu aldean ezartzen jaun aphez jakintsun horrek : *espèce de gros corbeau*.

Nihork ez dauku deus argirik horietaz ematen ahal izan, « Gure Herriaren » irakurtzaileetan nor edo nor balinbada zerbeit dakienik, othoi hitz bat hel-araz dezagula. Milesker erranen diogu gogotik.

(*Bertze aldian jarraipena*).

L. DASSANCE eta J. ELISSALDE.



ESKUAL-HERRIKO HEGAZTINAK ETA CHORIAK



UZKINACHOA. — GEAI. (1e)

Liburuetan hegaztinez eta choriez mintzatu direnek ez diote begitarte ona egiten uzkinachoari: ez omen da hori bezalako bihi, fruitu, chito, piro eta guziz chori eta chori arroltze jalerik. Neguan badaki hargatik gutiagorekin egoten: udan bildu ezkurra jaten du orduan. Tipitik kaiolarat harturik ere, bere jitea ez du galtzen, arras bederen: ohoin sor, ohoin hil. Halere zerbeit onik badu: kaiolan kantatzen eta mintzatzen, bertze edozoin hegaztinek baino hobeki, ikasten du.

Badire uzkinachoa saltsan arras maite dutenak: ez da halere ahotik ezin utzia.

Tokika hegaztin hau «*eskinasoa*» eta «*izkinusoa*» deitzen dute. Harriet jaun aphezaren arabera ez litzaioke azken izen hau baizik eman behar, usokalakaria delakotz, *pigeon bavard*, *hitz-kin usoa*. Eta aldiz, dena ditcho den Eskualdun baten arabera, «*uzkilachoa*» behar ginioke erran,... gibleko athea maiz idekia duelakotz. Egia erran Eskual-Herriko hegaztinetan ez da athe hori zabalago duenik eta zabalduago daukanik. Bainan barka hau erranik!

Dena dela, aski begiko hegztina da bere buruko kukuruchtarekin eta hainbertze luma urdin pollitekin.

PHIKA. — PIE (la).

Phika, phika, madarika, da errana. Eta egia erran, hartako hobe da phika bere buru ergel, buztan luze eta karranka nardagarriarekin. Han eta hemen « *lapur-choria* » erraten diote eta izen hori egiazki merezi du: zer nahiri lotzen da, belea bezala, argia den ber. Deusik ez du chori arroltzeak baino maiteago: chitoak ere arras on zaizko.

Nolakoa den phika ez dugu erran beharrik: orok badakite. Aro ederrak egin behar baditu arruntean, ohantzea zuhaitz gorenen puntan egiten du: bertzela, beherachago. Eta ohantze hori ederki lapharrez gerizatzen duela gero! Zazpi-zortzi arroltzetaraino egiten ditu.

KANKANOTIA. — PIE GRIECHE ROUSSE (la)

Hegztin huni bardin erraten diote *pikaporta*, *pikala-porta*, *frikafroka*, *suge-choria* eta *antzara-choria*. Hemen gaude nundik heldu zaizkon lehen hirur izen horiek. Eta aldiz iduritzen zaku suge-choria deitzen dela, suge kolore delakotz: antzara choria, zeren antzarak bezala-bezalako karranka bat egiten duen. Eta futcho, berenaz batere kantaria ez delarik, bertze chori bat aditu dueneko, nola uste duzue kanta hura charamelatzen duela kankanotiak!

Ez da baitezpada gure eskualdetakoa kankanotia. Bainan hemen gairi aise laketzen du eta ez da batere mirakuilu negu bethean ere bat edo bertze gure oihanetan ikustea.

Biligarroaren heintsukoa da hegztin hau. Moko bihurri bat du: behatz luze eta azkar batzu aztaparretan: luma, bizkarrean gorrasta aire batekin, azpian zuriska.

TAKTAKA. — PIE GRIËCHE ECORCHEUR (1a)

Kankanote mota bat da taktaka, tipiskoa. Kankano terik ez da hau bezen maiz hemen gaindi ikusten denik. Baditake hegaztin hunek baduen Lapurditik kampo bertze izenik. Lapurdin hola deitzen dute goizetik arratserat taktak eta taktak, mokoarekin zuhaitz eta harroka guzien kontra joka ari delakotz. Erran zahar baten arabera, nun kausi ura ari omen da hola. Behin Jainkoak chori guziak deithu bere ganat eta taktaka ez zitzaion ethorri. Jainkoak ondoko egunetan erran zion, gaztigutzat bizi guzia egarri eremanen zuela. Orai, uste othe duen gaicho taktatak zuhaitzetan eta harrietan direla ithurriak!

* * *

Uzkinacho, phika, kankanote eta taktaka arras hegaztin kalte egileak dire: zer-nahi chori arrotze ohantzetan jaten dutelakotz. Miletan hiltzeko hobeak dire. Chichparik ez duenak, aski du haragi puska bat chehe-chehea eginik eta pozoin borthitz zerbeit barnean bildurik hildo batean pausatzea: ikusiko du zer andanak hilen dituen. Hola egitekotz hargatik, bethi begia atchikiko du chakur edo oilo edo bertze edozoin hegaztin ongi-egile ez dadien pozoina.

Bertze molde bat lan beraren egiteko, hau da. Har huntza bat, pazota bati esteka phentzearen erdian. Inguruko uzkinacho, phika, kankanote eta taktaka guziak harat bilduko dire huntzari mendekatzeko, begien bichtan ez dutelakotz ikusten ahal. Eta oro harat bildu direlarik, garbi tiroka. Bainan lehenago ere erran dugu gauza hau..

SORGIN-CHORIA. — GRIMPEREAU (1e).

Gau-chorietan bada bat edo bertze Eskualdunek « sorgin-choria » deitzen dutenik, bainan egiazko sorgin-cho-

ria, hau-da. Ez dakigu han-hemenka ez othe dioten « *armiarmo-jalea* » ere erraten. Etchechoria baino den gutieneko bat tipiago da : bizkarra ilhuna du zafla gorrasta batzuekin : azpia zuriska. Nun-nahi kautsizen da, nun-nahi ikusten zuhaitzari gora doala, terren terren, lephoa eskuin eta ezker dabilkala.

Nahiz aski maiz sagardietan ikusten den sorgin-choria, ez du deus kalterik egiten : ongi-egile handia da gaichoa, hainbertze mamutcha eta har gaichto jaten duelakotz.

Bada sorgin-chori mota bat pino oihanetan baizik ikusten ez dena : « *grimpereau brachydactyle* » erraten diote erdaraz. Bertzea bezala-bezala bizi da.

GORRIOLTCHA. — TICHODROME (le).

Ez da choririk gorrioltcha baino ezagut errechagorik : gain azpiz beltza da eta hegaletan baditu bi zafla gorri min. Larramendyk bere hiztegian « *gorribeltcha* » erraten dio.

Mendi gainetan bizi da gorrioltcha, bainan aski bakan kausitzen den choria da. Eskual-Herrian ez dugu uste Santa Grazin baizik ikusten dela, harroka zenbeiti gora terren-terren doala, noizetik noizerat bere hegal pollitak iguzkirat zabalduz. Zer-nahi mamu eta mamutcha jaten du. Bere pollitez gorrioltcha bizitzerat utzi nahi ez duenak, utz dezala bederen zeren den holako ongi-egilea.

Neguko luma gehiena argitzen omen zaio. Etchechori larri baten heinekoa da gorrioltcha.

BAS-OILARRA. — HUPPE (la).

Bas-oilarrak badu bertze izenik ere : deitzen da bardin *Kukuruchla*, *Argi-oilarra*, *Marchoilarra*. Nor da chori pollit hau ezagutzen ez duenik ? Aski ondotik ibilki ahal zaizko gure ihiztariak, bat nunbeit usnatzen duteneko !

Ez da udan baizik hemen gaindi agertzen bas-oilarra bere kukuruchta chabal pollitarekin. Ez du maite oinhanetarik hainitz baztertzea. Maizenik lurrean pausatua dago, har eta mamutchen ondotik.

Kaiolan ederki laketzen omen du bas-oilarrak. Hazteko aski omen zaio jaterat ematea, badakizue zer? Idi bihotza chehe-chehea eginik. Uste duzue!

ARTCHIPOTEA. — ETOURNEAU (P).


Arthaldeak alhan, artchipoteak aldean. Eta artchipotea hain trebe da ardiarekin nun noiz-nahi bizkarraren gainean pausatuko baitzaio, pikoka pikoka, ardia kechatu gabe, lakasta zenbeiten ilean atchemateko. Ezen, berehala erran dezagun, artchipotea mamu eta mumutcha jale handia da: deusik ez du lakasta eta lespada (edo beltzuntza) baino maiteago. Harrak eta bareak ere onak zaizko. Ongi-egile handia da beraz artchipotea.

Bi artchipote mota badire: bat arras beltza, bainan ez da maiz gure eskualdetan ikusten: bertzea ilhunskoa, tita churi tipi-tipi batzuekin. Hau dugu hemen gaindi ikusten: biligarroaren heinekoa da. Aire bat buruan hartzeko ez omen da buru hobeko choririk. Han-hemenka « behorchoria » erraten diote: bai-eta « zozabarra ».

(Bertze aldian jarraipena).

L. DASSANCE eta J. ELISSALDE.





ESKUAL-HERRIKO HEGAZTINAK ETA CHORIAK



ETCHE-CHORIA. — MOINEAU (Le).

Huna lefro lefro etchechoriaren bertze hamarbat izen : *elizachoria, murruchoria, ormachoria, parrachoria, choriarrea, choarrea, kurroia, kurroka, garraioa*. Eta baditake izen hōrietaz bertzerik ere baduen han edo hemen. Hortarik ageri da eskualde guzietan hedatua eta ezagutua dela chori hau.

Laborariak beren gostuz badakite zer kalteak egiten dituen ogietan eta arthoetan. Zaku erdi bat bihi ez omen du aski, urthe buru batetik bertzerat, etche-chori bakotchak. Manastietako sarraskiak bertzalde. Eta horrengatik badire kalte baino ongi gehiago egiten daukula finkatzen dutenak ! Harritzeko omen da zenbat mamutcha, pinpirin, har eta chichari iresten duen, guziz umeen hazten ari delarik, primaderan.

Guziengatik uste dugu hiltzeko hobeia dela etchechoria, baina ozarra bada etchetarik hurbiltzeko eta etchetan sartzeko, ez da eskura errecha hiltzeko.

Bada etchechori mota bat baino gehiago : erdaraz mota bakotchak badu bere izena : *moineau franc, moineau*

soulcie, friquet, moineau cisalpin, etc. Nola arras batzu bertzeen idurikoak baitire eta batzu bertzeak bezala bizi, hemen oro doazila elgarrekin.

MERTCHIKA-CHORIA. — BOUVREUIL (1e).

Mertchika-choriak ere gure jakinean baditu bertze izen batzu: *chori gorria*, *chori oilarra*, *herio choria*, *lluka*, *purloia* eta *murruba*. Gipuzkoan ez diote kasik « murruba » baizik erraten. Etchechoriaren heineko chori bat da, ezagut-errecha bere gibelalde churi, azpi gorrasta, buztan eta hegal beltchekin. Nahiz ez den mertchikari berari aiherrak, izenak erakusterat ematen dauku maiz mertchika ondoaren gainean dabilala: botoinetan hainiz kalte egiten omen du, mamutchak hetan kaustuko dituelakoan. Ez da beraz errech mertchika choriari barkatzea bere chede onaren gatik ere.

Hargatik ba omen da mota bat, erdaraz « bouvreuil cini » deitzen dena, batere-batere kalterik egiten ez duena. Azpia horia du hunek gorrasta izateko orde: ttipichago ere da bertzea bairo.

Arras kantaria da mertchika-choria eta kaiolan sartu eta arras hangotzen da. Noiz-nahi bortz-sei urthetaraino biziko da preso.

Mertchika-choriak mintzatzen ikasten omen du ederki: guk ez dugu ezetz ez baietz finkatuko.

EZKUR-CHORIA. — GROS BEC (1e).

Etchechoriaren heintsukoa da ezkur-choria ere. Bethi aise ezagutuko da lephoko marra zuriska batetik: bizkarza beltzarena du eta azpia gorrast-arina. Primaderar frango mamutcha garbitzen du; handik kampo hainiz eta hainiz kalte egiten du fruituetan, guziz gereziatan. Neguan ezkurak eta gaztainak on zaizko eta arras on, omen.

Ez da neguan baizik oihanetarik urruntzen ez kur-choria.

TORROTTA. — VERDIER (le).

Hemen gairdi dabilzan edo bizi diren choretan ez da torotta baino ederragorik : azpi guzia horasta du eta bizkarra pherde ilhuna.

Bihi jale gogorra, torrottak hainitz kalte egiten omen du. Ez du batere maite bakarrik ibiltzea : kaiolan laketzen da, baino ez da nihunere ez den kantaria.

Torrottari, han eta hemen, bardin erraten diote *durdura*, *berdauza* eta, Larramendiren arabera, *choaberdea*.

MOKO MAKURRA. — BEC CROISÉ (le).

Ez da baitezpada gure eskualdetakoa chori hau, nahiz bat baino gehiago eskuetan ibili dugun, andanaka eta noizerat hunat ere agertzen baita. Ez du ere eskuaraz izenik. Zer zaioten asko eta askori galdeturik moko-makurra deitzen dugu, izenetik aise ezagut dezaten Eskualdunek.

Hainitzek nahi luketen bezala, hain eri dugun haitzaren orde gure oihan, larre eta mendietan landatzen baginu pinoa, moko makurra agerlitake hunat eta laket litake gutartean, ezen pinoetan baizik ez da bizi chori hau.

Bainan ez dugu batere beldurrik! Haitza hilen da eta hemen ez dugu, behin bederen, pinorik ikusiko. Bertze uli ausikirik behar dugu Eskualdunek mugitzeko!

NEGU-CHORIA. — PINSON (le).

Huna hemen ere chori bat, guziek ez bada, gehienek bederen ezagutzen dutena, bere azpi gorrastarekin. Maiz etchechoriekin dabila, etche inguruetan. Hemen gairdi dabilzan choretan bat ez da alegeragorik, kanta bethi mokoaren puntan.

Primaderan, umeekin delarik, mamutcha hainitz jaten du negu-choriak eta umeeri jan-arazten, bainan gero aski aise lotzen da fruitu mota guziera : bihiari ere ba.

Kaiolan hain ongi laketzen omen da nun, zenbeit dem-

boraren buruan, ihesa har dezan beldurrik gabe, athea zabal-zabala utz baitakioke. Egia errateko hargatik, negu-chori bati hainitz atchikitzen eta, ez ginuke guk omen hori frogan eman nahi!

Chuberotarrek eta Laphurdin Ezpeletarrek « *chur-choria* » deitzen dute chori hau; *chorchinta* Gipuzkoarrek, Harriet aphezaren arabera.


KARDAMIRUA. — CHARDONNERET (le).


Bere buru gorri, hori, churi eta beltzarekin, hemen gaindi othe da kardamirua baino chori pollitakorik? Ez dugu uste. Kantari hautuzkoa da bertzalde eta kaiolan ederki laketzen da, guziz ttipiskoan sartua delarik. Babere ez da izipera eta noiznahi han egonen zautzu ttiritaka, kardabera baten puntan, kasik eskua gainean eman arte. Harritzeko da zenbat chori den hemen gaindi mamutchak janez bizi denik primaderan, gero kalte hainiz bihi eta fruituetan eginen badute ere: horietarik da kardamirua. Nork finka beraz ongi baino kalte gehiago egiten daukula edo kalte baino ongi geniago? Guk ez dugu eginen.

Kardinala, *kardintcha* eta *egagorria* deitzen dute chori hau tokika.


(*Bertze aldian jarraipena*).

L. DASSANCE eta J. ELISSALDE





ESKUAL-HERRIKO HEGAZTINAK ETA CHORIAK ⁽¹⁾



CHIRRICHA. — SERIN MÉRIDIONAL (1c). — Urthe buru batetik bertzerat ez da gure eskualdetarik urruntzen chirrichka edo zirrizka. Maiz baratzetan ikusten da, guziz primadera aldean. Udazkenean andana bat elgarretaturik eskuin eta ezker dabilta, tirritaka.

Primaderan hainitz ultcha garbitzen du chirrichkak: gero ez omen du hargatik bihia baizik nahi.

Arras kantari pollita da choritto hau eta kaiolan ederki laketzen da. Demborarekin nahi den airea buruan sararaz omen dakioke. « *Chilichka* » deitzen du gure chirrichka bere liburuttoan Guilbeau (2), Donibaneko jaun jakintsunak.

CHOKA. — LINOTTE ORDINAIRE (1a). — Chori huni bertze izenik ere ematen diote han-hemenka: *liho choria*, *burugorria*. Etchechoria baino den-den gutieneko bat ttipiago ditake.

Badire hirur choka mota bederen bat bethi hemen dagoena, bertze biak iphar-aldetik neguan hunat agertzen

(1) Page 760 de notre précédente étude lire « *elur choria* » au lieu de « *chur-choria* ».

(2) *Quelques extraits du Vocabulaire Basque*, par M. Guilbeau, Saint-Jean-de-Luz. 1908.

direnak. Erdaraz « *linolle ordinaire, linolle monlagnarde, linolle venturon* ».

Bihi jale handi baten fama du gutartean chokak, baina Froidefond delako jaun batek huna zer dion: « Ez dire bethi zaharren erran guziak trogarik gabe sinhetsi behar. Hamarbat choka atchewan-eta, bat bertzearen ondotik ideki ditut beraz, herak ikertzeko, eta badakizue zer kausitu dutan hera hetan? Zenbeit behar ondo tchar, hainitz chichari eta harrigarrizko har keta... »

Hola denaz geroz, begitarte ona egin bezo laborariak chokari. Aski kantaria da bertzalde eta kaiolan lakhetaraz errecha.

« Hildo choria » deitzen du chori hau jada aipatu Guilbeau jaunak, baina gure arabera huntan ez da chuchen mintzo: bertzerik da hildo choria.

CHORIBARDOINA. — BRUANT JAUNE (le). — Huna nun nahi eta noiz nahi kausitzen den chori bat. Etchechori larriena bezen larria da. Udan, phentzetan barna, bakarrik ibiliko da, baina neguan etchechorien eta negu chorien artean, aski maite du etchetarat hurbiltzea, zerbeit jatekoren biltzeko, ezen mamutchak bezen on zaio bihia. Etchetan ere sartuko da eta noia nahi, han zerbeit senti badu!

Ez da segurki nihun ere aditzen ezden kantaria chori hau, baina bada tcharragorik eta kaiolan ederki lakhetzen da. Preso ere bortz-sei urthe eta gehiago biziko da, chori beharra ausarki ematen bazaio. Gipuzkoan « *arbi choria* » erraten omen diote.

OTHE-CHORIA. — BRUANT FOU (le). — Izenetik beretik ageri da nun kausitzen ahal den maizenik chori eder hau. Hargatik negu hotzetan larretarik zenbeit aldiz bederen zelhaietarat jausten da. Otsoa ere oihaetik athera-arazten du hotzak.

Arras gure eskualdetako choria da othe choria: hain-

bertzetaraino nun iphar-aldean ez baitute kasik ezagutzen. Lurrean edo lur arrasean egiten du ohantzea, maiz othe zangar bati kontra. Orenak eta orenak gordea egoten da, othepean, nihorat mugitu gabe: horra zertako dudarik gabe erdaraz « chori zoroa » deitzen zuen chorieta arras trebe zen Guys delako jaun batek.

Othe choriak deitzen ditugu hemen gaindi bertze asko eta asko chori ttipi larretan bizi direnak bereziki erdaraz « tariers » deitzen dituztenak.

MIARRITZA. — ORTOLAN (1). — Nundik heldu zaio chori huni Lapurdiko herri eta herrichka hainitzetan ematen dioten izen hori? Jainkoak daki. Goyetche derizan Eskualdun omen handikoak « miarritza » deitzen zuen (1) bere alegietarik batean.

Chorieta bat ez da mahainean ano churiek begitarte hobea egiten diotenik. Andana osoak sareetan atchematen dituzte kaskoinek eta gero, nunbeit, sosaren puntan saltzen. Landesetan etchalde osoak badire ihizi hortarik bizi direnak. Eta nola bizi!

Duela hogoi-ta zenbeit urthe Espagnolle derizan jaun aphez batek egin liburu batean irakurturik gure Miarritzak « baratzchoria » duela egiazke izena, eskuin eta ezker ahal dugun guziri galdetu dugu izen hori aditu duen nihork. Aspaldi « Provence » delako erdal eskualdean dagon Eskualdun batek seguratu daukunaz, « ortolan » hitzak han gaindi baratzezaina erran nahi omen du. Latinez ere hala derasa bitz horrek. Hortarik datorke naski Espagnolle jaun aphezak baratzchoria erratea miarritzari. Bi izen horietaz bertzerik guk ez diogu chori huni ezagutzen. Bizkitartean bertze bizpahirur balitu ere, ez gintazke harri: hain ezagutua da!

ALAUDA. — ALOUETTE DES CHAMPS (1). — « Alauda » ez

(1) Alegiak edo fableak Lafontenenetarik berechiz hartuak, Goyetche aphezak.

da baitezpada eskuarazko izena. Ez eta ere «llaudeta», edo «allarda» han eta hemen erraten duten bezala. Baina bertzerik ez denean...! Doala beraz hortarik.

Urrian agertzen da gure eskualdetarat alauda, Aphirilean urruntzeko berritz. Sekulan ez dabila bakarrik. Maiz lurrean pausatua, badaki behar orduan zeru gorenerat altchatzen, guziz iguzki eder delarik. Ez da chorieta goizago kantaz hasten denik.

Lurrean egiten du ohandza eta hirur alditaraino lau eta bertz ume aldia hazten ditu. Mamutchak bezala bihi mota guziak on zaizko. Jateko hauta da alauda.

Noizean behinka bertzeen artean ikus ditazke alauda churi-churi bakhar batzu: bat gure begiez ikusi dugu Diesse jaunak Larresoron hila.

CHORIANDRA. — GALANDELLE (1a). — Alauda mota bat da choriandra ere eta Harriet jaun aphezak ematen dauku, oraino, izen hau. Artean erran dezagun, zer obra ona eginen luken segurki jaun aphez jakintsun horren hiztegi paregabea argitaratzea bere gain har lezaken Eskualdun bihotzdun eta... dirudunak!

Alauda baino den gutieneko bat ttipiago da choriandra. Alaudatik berehteko aski zaio aztaparrefarat behatzea: erhi pototseko behatza alaudak baino hainitz laburrago du. Ez omen da urthe guziz Eskual-Herrirat agertzen choriandra.

KUTTURLIOA. — COCHEVIS HUPPÉ (1e) — Oraino alauda mota bat hau, bere moto pollitetik aise ezagutzen dena. «Alauda motoduna» erraten diote Donibane-Lohitzuneko aldean. Maiz leku apalskoetan ikusten da, guziz errepiretan. Bethi bakarrik dabila kutturlioa. Abereen ongarrietan kausitzen du bere jateko gehiena, bihi eta mamutcha. Alauda baino hainitz kantariago da oraino.

LARRECHORIA. — ALDUETTE LULU (V). — Udazkenean

lagunekin ikusten dugu larrechoria, handik kampo maiz bakarrik. Gutu urruntzen da larretarik. Motoduna da alauda hau ere, gaineratekoan alaudaren itchura handiarekin. Alauda mota guzietan ez da larrechoria bezen hedatua denik: Italian, Autrichian, Rusian, Angleterran bai eta Alemanian hemen bezen ezagutua da. Alemanian « *oihanetako alauda* » deitzen dute: « *wald-lerche* ».

PHENTZE CHORIA. — AGRODROME CHAMPÊTRE (i') — Urthean bietan, primaderan eta udazkenean, Eskual-Herrirat agertuko da chori hau. Ez da phentzetarik kampo kasik ikusten. Bere zango lucheen puntan, jauzi eta jauzi, ez da norbeit eskua gainean eman-arte kasik airatzen bereziki udazkenean harra bezala gizendua delarik. Etchechoria baino handichago da. Belhar hazia aski maite du, bainan ulitcha, chichari, har eta ttirrita hainitz ere garbitzen du. Neguan maiz alaudekin batean ikus ditake phentze chori bat edo bertze.

PHIKO CHORIA — PIPIT DES ARBRES (le). — Asko eta asko choriri eskuarazko izen hau bera ematen diotegu hemen gaindi. Hau da bizkitartean gehien-gehiena phiko choria deitzea merezi duena. Hemen mahatsari baiinbada gehienik aihertzen, « Provence » delako eskualdean ez omen du phikorik baizik jaten. Bethi bakarrik dabila phiko choria.

Gainez ilhunskoa, azpiz zurizkoa, lepho sahetsak eta hegal azpiak gorrastak ditu chori hunek hán hemenka zafila ilhunkara batzuekin. Apheriletik Urrirat agertzen zauku bakarrik hemen gaindi: neguko norapeit itzaltzen da, bainan ez omen du maite, bertze hainitz chorritok bezala, itsasoa iragaitea.


Jateko hoberenatarik da phiko choria eta aspaldi du ondotik dabilzkiola aho churiak. Apicius izena zuen lehen mendeko eta dena tripa zen jauntto batek jada erraten


zuen etzela phiko choria baino janhari hoberik. Gauza bera zerasan hirugarren mendean Athenée delakoak, bai-eta Hesychius Greziako jakintsun handiak. Eta demboraren buruan guk ere aithortuko dugu laño-lañoiki ez diogula segurki thu egiten phiko choriari...

TITITA — PIPIT DES PRÉS (le). — Nun-nahi, noiz-nahi kausi ditake hemen gaindi titita, phentze umiskoetan berèziki. Lagunkina da arras : behinere ez da bakarrik ikusten. Bere zango luzeekin, badu phentze choriaren planta frango : egia erran, mota beretik da.

Guilbeau jada bizpahiruetan aipatu dugunak « pipit richard » delakoari ematen dio eskuarazko izen hau. Huntan ere ez dugu uste chuchen mintzo dela, ezen « pipit richard », hori ez da arras bakhan baizik gure eskualdetarat agertzen : Ameriketako choria da berenaz. Bainan huts ttipi bat edo bertze barka dakioko Guilbeau jaunak bezalako lan onak eta ederrak egin dituenari.

L. DASSANCE eta J. ELISSALDE.





ESKUAL-HERRIKO HEGAZTINAK

ETA CHORIAK



HILDO CHORIA — BERGERONNETTE PRINTANIÈRE (la)—
Aphirilean agertzen zauku Eskual Herrirat hildo-choria eta maiz, aphezchoriaren itchura handia baduelakotz, harentzat hartzen dugu. Nahiz mota bereko choriak diren, biga dire eta arras biga hildo-choria eta aphez choria. Hildo-choria neguko hotzetan bederen nunbeit dabila, diotenaz Afrikako eskualdetan, eta aphezchoria aldiz behinere ez da hemendik higitzen.

Laborariak ez du hildo-choria baino adiehkide hoberik. Chori hunek ez dio bihiari minik egiten eta aldiz Jainkoak daki zenbat chichari eta har garbitzen duen. Ohart dadiela laborari bat nunbeit iraulden ari dela, laster ondotik jarraikiko zaio hildo-choria agertuko dituen chichari eta har guzien moko puntaz biltzeko, vlik eta klik. Hura da-eta gaicho choriaren phesta guzia..

Han eta emen «itzain-choria» erraten diote.

APHEZCHORIA — HOCHÉQUEUE GRIS (le) —. Ez dugu segurki aphezchoria nolakoa den nihori erran beharrik : nork ez du ezagutzen ? Eskualde guzietan ez du hargatik izen bera. « Buztanikara », « eperdikara », « ipurdantzari » edo « zirrita » deitzen da tokika. Urthe buru batetik bertzerat gurekin dugu, udan maiz ur hegietan, gero nun-nahi, begia arin eta buztana chut.

Urthean bietan egiten ditu arroltzeak, aldian lau edo

bortz. Nahiz ez den jendekina aphezchoria, kaiolan aski lakhetzen da.

Ongi-egile handia da chori hau ere eta bizkitartean gerla gorria egiten diote gizonak. Frantzia barne hortan, Agen deitzen den hiriko aldean bereziki, sareetan zer-nahi hartzen dute. Eta buru hortarik zer ez du laborantzak galtzen ? Meline, Henri Fabre eta Brehm jakintsunen arabera,.. miliunak eta miliunak urthe buru batetik bertzerat !

ITHURRI-CHORIA — BERGERONNETTE BOARULE (la). — Den gutieneko bat aphezchoria baino handiago da hau, baina mota beretik. « *Fuñika* » erraten diote han-hemenka : « *erreka-choria* » ere ba.

Udazkenean ikusten dugu gehienik hemen gaindi ithurri-choria, ur hegiz ur hegi dabilala nun zer kausituko duen. Ez da batere lagunkina eta laster kolpeka hasten da bere motako choriekin ere.

Chori hunek ez du ongirik baizik egiten eta bizkitartean gizonak ez dio bakerik uzten. Baina Italian diote gerla handiena egiten. Urritik harat da han gaindi ithurri choriaren ihizia, hitz hautarik ageri den bezala : « Si vuol tendere a quest'ucello da mezz'ottobre continuando fin per tutto novembre. »

UR CHOCHOA — AGUASSIÈRE CINCLE (l'). — Arras hemengo choria da ur chochoa : gure mendietako erreketan noiz-nahi kausitzen da. Chochoa baino puskatto bat ttipiago, ez da arras beltza azpiz bederen. Ura maite du eta noiz-nahi pulunpean sartuko da erreketaren ondoraino eta han bere zangoen puntan ibiliko, hegialak zabalduak, kampoan bezen aise eta zalhu. Zer-nahi har eta chichari jaten omen du ur barnean : arrainik, ez. Erreketarik ezda sekulan hainitz urruntzen, ohantzearen egiteko ere.

HORIOLETA — LORIOT JAUNE (le). — Chori hunek badu izen lerro bat : « *chori horia* », « *lorrolla* », « *laulioa* ».

Horiek baino pollitago, Cambon erraten diotena : « horioleta ». Izenetik ageri du zer koloretakoa den eta ere nolakoa duen kanta. Ez da choririk aiseago ezagut ditateenik bere luma eder urhe koloretik.

Ez da bethi hemen egoten horioleta, bainan urthe guziz itzultzen zauku primaderan lau-bortz ilhabeterentzat. Hargatik hostoan hala gordea dagokigu maiz nun mirakuilu baita kasik ikustea bera.

Gereziari aski aiher da horioleta, bainan hainitz ulitcha eta har ere garbitzen omen du. Eta gainerat zer kantaria ! Souberbielle Uztaritzeko jaun auzaphez maitagarriak erran daukunaz, bethi laborariek omen du egiteko. Eta badakizue zer lelo pollita errepikatzen dioten goizetik arratserat ? Hau omen :

« Arthoak erain ttuka to ?

« Arthoak erain ttuka to ? »

CHOCHOA — MERLE NOIR (le). — Badire chocho beltzak eta badire . . . zuriak. Bainan hautarik bat gure eskualdetan ikustea espantagarri da. Horrengatik pare bat gure begiz ikusi dugu : bat Mugarren atchemana duela zenbeit urthe, bertze bat Baionan dembora bertsuan.

Chocho beltza hemengo choria da aldiz : nun-nahi ikus ditake, oihanetan, phentzetan, baratzetaraino. Zer-nahi mamutcha mota garbitzen du chochoak eta horrengatik ez ginuke finkatu nahi chori ongi-egileetarik dela. Mahastietan bereziki halako sarraskiak egiten ditu ! Bertze zer-nahi fruituetan ere ba !

Sasietan egiten du chochoak ohantzea : noiz-nahi hirur alditaraino urthean. Arras kantaria da : mintzatzen ere ikasten du eta gure beharrik bat aditu izan dugu « Allons, enfants de la Patrie », aski garbiki erraten zuena. Eta, gehiago dena, behin zerbeit ikasi-eta ez omen du gehiago ahanzten chochoak !

Bada chocho mota bat, azpian marra zuri batekin, urthe gehienetan Martchotik udazkenerat eskualde hau-

tarat agertzen zaukuna : erdaraz « merle à plastron blanc » deitzen da. Mend'etan ikusten da maizenik : ez da batere hurbil errecha.

TRITA. — GRIVE DRAINE (LA). — Ez da biligarroetan trita (edo tirrita edo trida) bezen larririk. Choloma bezenbat bada kasik. Gaineratekoan arras biligarroaren itchura du. Mendian bizi da arruntean trita, bainan neguko hotz handiek eta guziz elhurak jautsarazten dute handik. Zuhaitzetan egiten du bere ohantzea.

Mamutchak on zaizko tritari, bainan fruituak ere ba. Hargatik deusik etzaio mihuraren bihi churia baino gehiago gustatzen. Eskual-Herriko choria dugu arras hau ere eta urthe buru batetik bertzerat hemen egoten da.

BILIGARROA. — GRIVE MUSICIENNE (LA). — Primaderako goiz arratsetan nork ez du sasian entzun biligarroa, bazterrak hain choragarriki inharrosten dituelarik ? Chori guti da polikiago kantaz ari denik. Damurik ez da karioletan hobeki lakhetzen !

Hemengo choria da arras biligarroa ere eta aski kalte egiten daukuna, bereziki mahastietan. Gichen-gichena, mahaineko hauta da udazkenean.

Gipuzkoan gure « biligarroari « zozoa » erraten omen diote eta gure « zozoari » aldiz « sasizozoa ».

Bertzalde badire bertze bi biligarro mota, erdaraz « grive mauvais » eta « grive litorne » deitzen dituztenak. Neguari buruz agertzen dire Eskual-Herrirat bat eta bertzea. « Grive litorne » hori ez omen da jateko bertze biligarroak bezen ona.

PAPOGORRIA. — ROUGE-GORGE (LE). — Izenetik guziek aise ezagutuko dute papogorria. Han-hemenka badu hargatik bertze izenik ere : *antchagorria*, *papatcha*, *chantchagorria*, *antcharagorria*, *lephogorria*. Hainitz izen chori ttipi batentzat. Nun-nahi ezagutua delako froga. Tirit,

tiritit, titititik ari dela, gizonari kasik zangoetan egonen zaio, udan mendian edo oihanetan, neguan etche aintzinetaraino. Kaiolan preso hala hangotzen da nun zenbeit demboraren buruan gizonaren eskutik hartuko baitu bere jatekoa. Zer-nahi on zaio: mamutcha, chichari, har, zerren, uli eta bihi. Mahatsa ere aski maite omen du udazkenean. Horrengatik ez da papogorria baino chori maitagarriagorik.

L. DASSANCE ETA J. ELISSALDE.




Quelques Caractéristiques de la Chanson Basque



Les fileuses ont été nombreuses dans notre pays, mais elles ont presque disparu aujourd'hui. Elles ont laissé peu de trace dans la chanson basque. Je n'en connais que celle-ci, très répandue d'ailleurs, « *Irulen ari nuzu* », dont on pourrait discuter peut-être le caractère basque. A Banka, le mois dernier, j'ai eu la bonne chance de recueillir, une petite mélodie, qui fait allusion aux fileuses. Celui qui me l'a apprise la tenait d'une femme née en 1794. En voici les paroles :

Irule on guti
izaiten omen da
goiz etzaten den andretan.
Eta don pirurun,
» »
Irule gaixtoa
edale on.....

On dit qu'il y a
très peu de bonnes fileuses
parmi celles qui se couchent de
bonne heure.
Eta don pirurun, (bis)
la mauvaise fileuse
est une bonne buveuse.



ESKUAL-HERRIKO HEGAZTINAK

ETA CHORIAK



CHIRRICHKILA. — ROSSIGNOL (LE). — Huna han-
hemenka chirrichkilarari ematen diozkaten hirur izen :
errechiñula, errechiñoleta, urretxindorra. Baduke bertze-
rik. Chorietan ez da chirrichkila baino ederkiago kantatzen
dakienik : horra zertako egundainotik errana den kan-
tarien errege dela. Bai, hala da egiazki.

Hotza arras partida du chirrichkilak : Urritik prima-
dera arte ez dugu hemen gaindi ikusten :

Neguan ez da ageri
Balin ba ez da eri!

Bainan Apheriletik harat, oihan chokho guzietarik
ageri da haren kanta paregabea eta choratuak dauzka
gizonak argi-haste eta ilhuntzetan.

Laborariak adichkide hobe guti du chirrichkila baino,
harritzeko omen baita zer mamu tzar, zinaurri, har eta
uli ketak garbitzen dituen! Noizetik noizerat phiko,
adan eta gerezi bakhar batzueri lotzen bada, aise barka
dakioke.

Nola edo zertarik ezagut chirrichkila ? Egia erran, ez
da errech, kantaz ari ez delarik, ezagutzea. Deus ez du
gorphutzean ohartgarririk. Etchechoriaren heintsukoa

da, buztina kolore burutik buztan puntarat, nihun zafla zuri, gorri edo urdin bat gabe seinale gisa.

Hainitzek ba othe dakite chirrichkilaren ichtorio zahar pollita ? Beldurtzeko da ezetz. Dezagun beraz hemen ezar.

Jainkoak, zeru-lurrak egin ondoan, egin zituen choriak eta aingeruetan artechenari manatu zion bakotchari eman zezon, gizonen gatik, seinale bat. Eta berehala aingeruak ederki aphaindu zituen chori guziak. Hartako dire hain ikusgarriak papogorria, kardamirua, horioleta, aphezchoria, sagarchoria..... funtsean guziak, salbu chirrichkila. Hau, gaichoa, buztina kolore gelditu zen, huntarat orduko koloreak akhabo baitzituen aingeruak.

Jainkoa lorietan zagon chorieri, bati beha, bertzeari beha, noiz-eta ere chokho batean, gorde-gordea, ikusi baitzuen..... chirrichkila, iduri ahatge.

— To! chirrichkilari zertako ez diozu nunbeit gorri pichka bat bederen ezarri ?

— Batere ez nuen gehiago.

— Bertze kolore zerbeit beraz ?

— Guziak akhabo nituen horren ganat orduko?

Eta aingerua hits-hitsa zagon bere kolore untzi hutsari beha, kasik ikharan.

— Etzazula urrikirik izan, zioen orduan erran Jainkoak, ez urrikirik izan : bere buztina kolorearekin egonen da chirrichkila, bainan ordainez zerbeit nik emanen diot munduko kolore guziak halioko dituenena ». Eta mokoa chabaldurik, chirrichkilari Jainkoak zintzurrean ezarri ziozkan bizpahirur zain ttipi, chirribitaren zainen parekoak. Ordutik omen da chirrichkila kantarietan lehena.

Errana da chirrichkilak mintzatzan ere ikasten duela. Claude Erromako emperadorearen bi semeek bat omen baitzuten etchean, greka eta latina irakutsi omen ziozkatzen. Nahi duenak sinhets dezala erran hori eta nahi duenak utz : guk nihor ez dugu bortchatuko.

PAPU URDINA. — GORGE BLEUE SUÉDOISE (LA). — Huna chori bat Frantzia barne hortan noiz-nahi kausitzen dutena : urthe guziz, udazkenean, agertzen da Eskual-Herri-rat ere, asko primaderetan bardin. Arthoetan ikusten ahal da maizenik, uretik hurbilsko. Izipera da arras eta bethi bakharrik dabila. Izenetik ageri du nolakoa den. Fruitueri noizetik noizerat lotzen bada, mamutcha hainitz ere garbitzen du eta uste ginuke kalte baino hainitz ongi gehiago egiten duela. Kantaz badaki. Preso, papoko urdina berehala histen zaio.

BUZTANGORRIA. — ROUGE-QUEUE (LE). — Etchechoriaren heintsuko, huna chori bat bere buztan gorri minetik aise ezagutzen dena. Azkue jaun aphez jakintsunaren arabera, « *ikalz-choria* » deitzen dute chori hau Bachena-bartarrek. Gure eskualdetarik ez da behinere urruntzen buztangorria : udan mendi aldean ikusten da maizenik, neguan etchetarik hurbil. Urthean bietan bederen arroltzeak egiten ditu. Batere ez du gizonak izitzen : ohantzea ere noiz-nahi selhau uetan egiten du-eta, nihork ez badu kechatzen. Ez da halako kantaria eta kaiola ez du behinere hartzen.

Bada hemen gaindi bertze chori bat ere buztangorria erraten dioguna eta urthe guziez, Aphiriletik Urrirat, gure sagardi eta baratzetan ikus ditakeena : erdaraz « *ros-signal des murailles* » deitzen da. Arrás ahaide hurbilak dire bi buztangorri hauk.

BUZTAN CHURIA: — TRAQUET MOTTEUX (LE). — Chori huni bardin erraten diote « *azpi churia* ». Harriet aphezak aldiz « *untchi choria* » deitzen du. Ezagut-errecha da segurki buztan-churia. Bethi han dago harri chut edo lur muilo baten puntan tente, zango bat airean. Ulitcha bat ikusi dueneko, firrichtan ondolik abiatzen zaio eta atchewan duelarik, toki bererat itzultzen da, itzea bezen chuchen.

Lurrean egiten du ohantzea. Mendiz mendi dabila neguan. Zer nahi mamutcha jaten du : bihi guti.

PINTCHA. — TARIER ORDINAIRE (LE). — Udazkenean sekulako begitartea egiten diote ihiztariek pintchari : beren sarectan nahi duten bezala hartzen dute eta nola orduan, gichen-gichena, ahotik ezin utzia baita, terrepentian saltzen dute. Nun-nahi kausi ditake udazkenean : handik kampo, iphar-aldean bizitzen da. Arras maite du sorho metaren puntan egotea eta han dagoelarik hurbil errecha da.

Chori bat baita « kalaka » erraten diotena, uste dugu hau bera dela, ezen pintcha ere ez da kalakatik ichiltzen. Zer-nahi dela, kalaka pintcharen mota bereko choriatarik da, bera ez bada.

ZALAPARTA. — MOUCHET CHANTEUR (LE). — Arras gure eskualdetako choria da zalaparta : udak mendian iragaiten ditu : neguan zelhaietarot jaustea maite du. Orduan sasiz sasi ikusten da, bethi lur arrasean, sagu bat iduri. Hortako dute chori huni holako izen bitchia eman Eskualdunek. Har eta mamutcha hainitz jaten omen du.

Ez da kantarienetarik eta kaiolan ere laster hiltzen da.

BURUBELTZA. — FAUVETTE A TÊTE NOIRE (LA). — Azkue jaun aphezak sagartchori mota bati erraten dio burubeltza. Eskuin eta ezker galdeka ibili ondoan, erdaraz « fauvette à tête noire » deitzen den choria dela burubeltza iduritu zauku guri.

Gure burubeltz hau nun-nahi kausi ditake, charan, sagardietan, baratzetan ere ba. Etchechoria baino den gutieneko bat ttipiago ditake. Sasietan egiten du ohantzea lurrari aski hurbil. Arras kantaria da burubeltza. Chirrichkilaz kampo chorieta othe da hoin polliki kantatzen duenik ? Kaiolan lakhetzen da ederki eta noiz-nahi,

preso, bortz-sei urthetaraino biziko da. Chori ongi-egilea hau ere.

Asko tokitan « aphezchoria » erraten diote chori huni : bainan bertzalde errana dugu zer den aphezchoria. Guilbeau jaunaren arabera aldiz burubeltz hau « chirrichkila » litake. Ez. Izaitekotz, eskualde bakhar batzuetan bezala « chirrichkileta » erran behar lakioko.

MARTCHUKA-CHORIA. — FAUVETTE DES JARDINS (LA). Hemen gaindi maiz bat bertzearentzat hartzen ditugu phiko-choria eta martchuka-choria, bereziki udazkenean bat eta bertzea ongi gichenduak direlarik. Bi chori dire bizkitartean, bi chori elgarrekin deus egitekorik eta ikus-tekorik ez dutenak. Martchuka-choria edo *intchusa choria* maiz baratzetako sasietan ikusten dugu, handik baratzea aise zaintzen duelakotz : babako zorria bereziki arras maite du. Burubeltzaren motakoa izanagatik, ez da hurbiltzeko ere hura bezen kantaria.

KRIKETA. — BABILLARDE GRISETTE (LA). — Uda guzia hemen gaindi iragaiten duenaz geroz kriketak, erran ditake hemengo choria dela. Baratz, sagardi, mahasti, oihan, guziak lakhet zaizko. Martchuka-choriaren itchurakoa da arras : denik ere gorrichago azpiz. Maite du, tirritaka, zeruetan barna altchatzea eta, han bizpahirur itzulipurdi airos egin-eta, toki beretarat jausten da chuchen. Hortarik ezagutuko da kriketa. Chori ongi egileetarik omen da.

ARTHOCHORIA. — ROUSSEOLE EFFARVATTE (LA). — Badire zenbeit chori han-hemenka arthochoriak deitzen direnak. Gure arabera, batek ez du izen hori hunek baino gehiago merezi. Primaderaren erdian agertzen zauku Eskual-Herrirat arthochori hau. Gainez gorrasta ilhun, azpiz arintchago da. Ur hegiak aski maite ditu : kanabretan gordetzen da ederki eta han egiten du maiz ohantzea

Bainan gero arthoa kapetatzen hasten da ba, laster harat joko du. Horrengatik, kalte baino ongi gehiago egiten omen du arthochoriak.

L. DASSANCE eta J. ELISSALDE.



Grammaire pratique de la Langue Basque



§ 48. **Le datif.** — Au point de vue morphologique, le datif est caractérisé par la désinence *i*¹. (Dans les noms propres dont le radical est terminé par une voyelle, une *r* s'intercale entre cette voyelle et la désinence *i*, comme nous l'expliquerons ultérieurement avec plus de détails).


Le datif a en basque le même emploi essentiel qu'en latin : il indique les idées de donation, d'attribution ou même simplement de destination qu'exprime en français la préposition *à* ; ex. :

Eman diot liburu bat Joanesi « J'ai donné un livre à Jean ».

Joanesek igorri dio erbi bat ene ailarari « Jean a envoyé un lièvre à mon père ».


Dans ces deux phrases le mot *Joanesi* « à Jean » et l'expression *ene ailarari* « à mon père » sont au datif.

¹ On observera qu'en latin et en grec primitifs la désinence normale du datif paraît avoir été également un *i*. Dans l'état actuel de la science bascologique on ne peut que signaler cette coïncidence sans en tirer d'autres conclusions.



ESKUAL-HERRIKO HEGAZTINAK

ETA CHORIAK



ERREPITTITTA. — TROGLODYTE MIGNON (LE). — Donibaneko chokhoan « *larrepitita* » erraten diote errepittitari : « *amiapulika* » Bachenabarren eta Naparroan « *txpelcha* » Gipuzkoan edo epecha.

Eskual-Herriko chorieta ttipiena delarik chori hau, guzien erregea omen da. Eta huna nola erregetua den. Egun batez chori eta hegaztin guziak hasi omen ziren apostuka zoin gorago altcha airetan : gorena altchatuko zena guzien errege izanen zela. Eta fla fla fla fla, guziak airatu ziren, salbu errepittitta. Hau karlo baten gibelean gordea zagon, berea gogoan! Berritz batetataratu zirelarik guziak, arranoak erran zioten iguzkiraino altchatu zela eta eia onhartzen zuten guziek erregetzat. Ezetz, errepittitak. Eta, aldi huntan bertze guziak lekuko arranoa berritz airatu ziren : errepittitta era ba. Bazoan, bazoan bethi arranoa. Unhatzen hasten da errepittitta. Zer egiten du orduan ? Arranoa ohartu gabe, haren hegala puntan pausatzen da eta gisa harten irabazten dio apostua. Hola da beraz errege chori hau, bainan hain errege pitika!

Ez da choririk errepittitta baino gutiago gizonak izitzen duenik! Hemen jauzi, han jauzi, men-menean egonen zautzu eskuz hunkitu arte. Zer chori maitea! Eta gainerat zer ongi-egilea! Harritzeko da goizetik ar-

ratserat zenbat har, zizari eta ulitcha kalitzen eta garbitzen duen! Nun sartzan ahal dituen ere!

Neguan hargatik, harrak eta zizariak barna lurpean daudelarik; errepittitta etcheradino ethorriko zautzu ogi puchka baten eske eta bardin, orduan, bihi zerbeit selhaurutik ebatsiko du. Bainan barka dakioko segurki gaichoari. Bere erregetasunak ez badio hoinbertze dretcho eman behar, ez du balio errege izan dadin..

ULICHORIA. — POUILLOT FITIS (LE). — Hemen gaindi lau ulichori mota bederen ikusten ditugu : ezagutuena hau eta etzauku ere balio nolakoa den erratea. Salbu negu bihotz-bihotzean bethi gurekin dago. Hemengo chori ttipienetarik da : bere erdarazko izena ere hortako emana du : pouillot, pusillus.

Udan, oihanetan bizi da maizenik : udazkenean baratzetaraino agertzen da, tuit eta tuit ari dela (1). Uli eta ulitchak dire chori hunen janharri baxharra.

Ulichoria lekuaren gainean ez dagoke, bethi puntaz punta jauzika ikusiko duzue.

Hainitzek uste dute ulichoria erdaraz « gobe-mouches » edo « oiseau-mouche » deitzen dituzten choriatarik bat dela. Ez. « Gobe-mouches » hori phikochori mota bat da eta « oiseau-mouche » delakoa Ameriketako chori bat, behinere hunat agertzen ez dena.

AMANJA MOTODUNA. — ROITELET HUPPÉ (LE). — Huna chori bat Garaziko aldean aski maiz ikusten dena, oihanetan. Handik kampo, ez da hainitz ageri, salbu neguko hotz handietan. Kukuruchta bat badu arras pollita, luma kolore batzuekin. Chut-chuta ematen zaizko luma horiek, kechu delarik. Orrearen puntan egiten du bethi kasik ohantzea amanja motodunak : zuharra ere aski gus-tatzen zaio hargatik.

Bada bertze amanja mota bat hunekin eite hainitz

(1) Horra zertako « aza-choria » deitzen duen ulichori mota bat Larriñuak,

duena : erdaraz « roitelet à triple bandeau » erraten diote. Arras Eskual-Herriko choria hau ere. Ez dire halako kantariak bat ala bertzea.

SAGARTCHORIA. — MÉSANGE (LA). — Badire lau edo bortz sagartchori mota gure eskualdetan. Badire urdinskak, badire beltzaranak, bainan guziak hein berekoak eta bardintsu bizi, batzu mendian, bertzeak beheretan. Sagar-ondo zilhoetan egiten dituzte beren ohantzeak, urthean behin : bainan aldi bakotch, noiz nahi hemezortzi arrollzetaraino. Izenetik iduri luke chori hauk kalte-egileak direla. Ez omen bizkitartean. Zer nahi bare, har, mamutcha eta zerren jaten omen dute. Eta zerrenak bereziki ! Haimbertzetaraino nun Chuberoan « *zerren-choriak* » deitzen baitituzte. Sagartchoriak baditu bertze bi izen ere : *chorabilla* eta *amilotcha*.

SAHATS-CHORIA. — NONNETTE VULGAIRE (LA). — Badu sahatshoriak sagartchoriaren eite eta horra zertako hainitzek finkatzen duten mota bèreko choriak direla. Hala uste ginuke guk ere. Hargatik erran behar dugu badirela bertzerik finkatzen dutenak ere. Dena dela, izenak berak irakusterat ematen du nun kausituko den chori hau : ur hegiko sahatsetan. Ez da maiz ikusiko handik kampo. Gerla gorria egiten diote liztorreri : ondikotz, erleeri ere ba.

BUZTANLUZEA. — ORITE LONGICAUDE (L'). — Hau da chori bat gorphutz baino buztan gehiago duena. Sasi, sagardi, baratze, nun-nahi ikusten da. Arras lagunkina, behinere ez dabila bakharrik. Ohantzea arras agerian egiten du. Mirakuilu da buztanluzeak bederatzi arrolltze baino gutiago egitea : hogoietaraino badoa noiz-nahi. Kalte baino ongi gehiago egiten duela erraten dute dakitenek.

PINPINTCHORIA. — MÉSANGE HUPPÉE (LA). — Huna sagartchori mota bat, erdaraz bezala eskuaraz bere izenarekin. Bertzetarik bethi ezagutuko da ezen kukuruchta

churi-beltch pollit badu buruan. Badarraikio ere gor-phutzetik usain on-on bat, bertze choriari ez bezala : orrearen usaina.

Bethi oihan barnetan bizi da pinpintchoria, bereziki orre ondo zenbeit han balinbadire eta bethi bakharrrik dabil. Ez da nihun lakhetzen oihanetik kampo : kaiolan zenbeit egunen bizia du doidoia. Ez da berenaz hemengo choria, iphar-aldekoa da : bainan Eskual-Herrian ere ikusten ahal dugu aski maiz.

Badakigu han eta hemen pinpintchoria bertze chori bati erraten diotela, chori papo gorrista bati, eta errana ere da :

Pinpintchoria,
Chori papo gorria.
Jan, jan koinata,
Chori saltsa on bat da.

Halere eskuin eta ezker atchewan ditugun chehetasunetarik iduritzen zauku gure chori hau dela egiazko pinpintchoria. Doala beraz hortan.

AINHARA. — HIRONDELLE (L'). — Nork ez du etheko sotoan ikusi, buztinaz egina, ohatze larri azkar bat ? Urthetik urtherat bethi harat itzultzen den ainhararena da. Urthean lau alditaraino arroltzeak egiten ditu chori hunek. Behinere ez dauku demendreneko kalterik egiten eta ba aldiz ongi hainitz. Beha bada horri buruz zer erraten zuen gipuzkoar ederrez, jazko Jorrailaren zortzian, « Argia » deitzen den Donostiako egunkariak : « Txori mota auk izan litekean ongileenak dira. Eñada biko edo pareja batek egunean amasei orduko lana egiten dute. Bakoitzak ordu batean 20 aldiz janariya beren umeai erematen die : ortatik aterako degu, 600 aldiz beren kabietara joaten dirala. Kabira joaten diran bakoitzean 10 etik 20 xomorro bezala eramaten dituzte, eta kontuk ondo ateratzen baditugu, ikusiko degu, egunero-egunero, eñada biko edo pareja batek 6400 («ei mila eta lareun) xomorro galtzen dituztela ».


Hor aiphu diren xomorroak Lapurdin mamutchak deitzen ditugu: kabiak, hemengo ohandzeak dire: biko edo pareja, hemengo pareia. Gainerateko hitzak bardint-suak dire han eta hemen eta, artean erran dezagun, sekulan Jainkoak nahi badu Zazpiek bat egin dezagun, laster elgar adituko dugu guziek. Huna orai asko eskualdetan ainharari ematen zaizkon bertze izen batzu: *ainhera*, *inhara*, *enada*, *elaia*, *eleia*, *zagaroa*.

KRIKUA. — MARTINET (LE). — Badire hiruzpalau ainhara mota: horietarik bat, krikua. Bertze ainhara guziak baino lehenago itzultzen da gutarterat krikua, primadera urratu deneko. Lurrean ez-eta zuhaitzetan ez da maiz pausatuko krikua, hegalak luzegi dituelakotz handik berritz altchatzeko. Hala-hala arras maite du harroka baten puntan hatsa hartzea, berritz chimichtan ulitcharen odotik abiatu aintzinean. Dembora galernatsu delarik, lur arrasean dabila kasik krikua, bainan iguzki eder delarik badaki zeruetaraino hegaldatzen. Arras chori alegera da krikua eta gehiago dena, ongi-egile handi bat hau ere. « *Amilolchoria* » erraten diote krikuari Naparroan: « *sorbellza* » edo « *ainhara bellza* » bertze batzuetan.

GAU-BELEA. — EUGOULEVENT (L'). — Hainitz larriago delarik, gau beleak badu ainhararen planta zerbeit. Oihanetan bizi da arruntean. Hainitz mamutcha eta pinpirin garbitzen du. Oihaneko choria izanagatik, ez da lurrean baizik pausatzen. Arroltzeak ere lurrean egiten ditu, batere ohandzerik gabe. Izenak berak irakusterat ematen duen bezala, chori hau ez da gauari buruz baizik atheratzen. Tokika *zala* eta *ahuntz edoslea* (1) ere erraten diote.

L. DASSANCE eta J. ELISSALDE.

(1) Ahuntzedosle izen hau arras zuzen kontrakoa du gau-beleak, ezen ez da behinere gau-belerik ikusi ahuntz bati esne khentzen, errana den bezala.



ESKUAL-HERRIKO HEGAZTINAK ETA CHORIAK



ETCHE-USOA. PIGEON DOMESTIQUE (le). — Hainbertze etche-uso mota bada eta hala ezagutuak nun gure baitan egonak baigare balio othe zuen hemen aip̄u bat egitea ere. Bai bizkitartean, Eskual-Herriko hegaztin eta chori guzien izenak ezagut-arazteko hasia duguna geroz gure lan hau.

Etche hainitzetan badituzte oraino usoak. Primaderan pare bat sar usotegian, hamabortz edo hogoi egun han preso atchik, eta gero nola-nahi athea zabal. Urthearen buruan zure uso pareá han izanen duzu oraino segurki. Eta zer diogu, pare bat ? Hamar bederen izanen ditutzu, ezen usoek ilabete guziez bi arroltze egiten dituzte. Nor-nahiri erran ginezoke usoak haz detzan, ez baginaki bihi jale handiak direla eta landetan frango kalte egiten dutela. Usoak maite dituenak atchik detzala preso, ez badu nahi begi tzarrez beha dezoten hauzoko eta herri guziko laborariék.

PHAGO-USOA. PIGEON RAMIER (le). — Usoetan handiena phago-usoa da. « *Usomandoa* » ere erraten diote, edo oraino gehiago, choil-choila « *usoa* » eta « *urzoa* ». Zenbeiték bizkitartean deitzen dute « *paloma* » ere, baina orok aithortu behar ginuke segurki eta halere izen hori bazterrerat uztekoa dela. Zertako ? Ez delakotz eskuara...

Uda, iphar-aldeko oihan handietan, iragaiten du usoak eta badakigu hango ihiztariék bakean uzten dutela. Ephe

laburreko bakea ! Buruilaren ondarrean, lehenbiziko cholomen ondotik, lotzen baita usoa bere bidai handieri, hego aldeko iguzki edo aro gochoez ase nahiz, orduan Eskual-Herriko ihiztariak etcholetako bidea labor daukate eta begiak ernerik dagozi ostoen tartetik begira noiz eta nun ikusiko duten urrunean heldu urthe guzia gogoan erabili duten ihizia. « Apheuk » edo Harriet jaun aphezak nahi zuen bezala « deiak » edo « deitzaleak » goiti-ta beheiti hegaldaka derabilzkate. Noiztenka multzo bat gelditzen zaiote aldeko haitzetan, sekulako arramantzarekin. Harrabots guti orduan, ihiztariak, urhats gutiago oraino ! Eta usook luma azkarra baitu, igor tiroa chuchen perdiun hoberenetik.

Hemen izipera da uso hau. Bizkitartean zerbeit ongi egiten diona, arras hartzen omen du eta behin irakurtu dugunaz, Pariseko baratze eder batean, han dabilzanen sorbalda noiz-nahi pausatuko omen zautzu, ongi phorroska zenbeiten inguzinan.

Bainan beldur gare hori ez dutela aise sinhetsiko... Saratarrek bederen.

CHOLOMA. PIGEON BISET (le). — Phago-usoa baino ttipichago da choloma edo « zoluma » edo « arruketa ». Bainan « arruketa » ez othe da kaskoinen « rouquet ? » Arras usoa bezala bizi da choloma eta toki beretan. Ogietan desmasia handiak egiten dituelako beldurra dugu, ezen paparoa maiz ogi bihiz mukurru bethea atchematen zaió.

Uso mota huntarik heldu omen dire etche-uso mota guziak, bai-eta erdaraz « pigeons voyageurs » deitzen direnak.

USAPALA. TOURTERELLE (la). — Usapalari « torloila » erraten diote hainitz Eskualdunek. Zertako ordean erdarari har izena, eskuaraz bat delarik ? Zer diogu, bat ? Biga badire eskuara garbiz, ezen usapala bezen eskuara da « uso purruta ».

Usapala oihanetan bizi da, zuhaitzetik zuhaitzerat zerbeit usnatzen dueneko. Negua ez du gutartean iragaiten, baina noiz nahi bat edo bertze ikus ditake.

Berenaz beldurtia delarik, gaztea atchematen bada, usapala arras etchekotzen omen da: zenbeit demboraren buruan nausia ezagutzen du eta norat-nahijarraikiko zaio. Azkenekotz etcheko gatuak ere ez omen du eta izitzen! Baina... hum!!!

LARRE-OILARRA. TETRAS UROGALLE (le). — Hegaztin guti da larre-oilarra baino ederragorik. Bat nunbeit agertzen deneko, badabilkio segurki ihiztari ondolik! Damurik ari da galtzen egunetik egunerat mota! Gure eskualdetako hegaztina da eta isaia oihanetan lakhetzen da bereziki. Hargatik burzuntza oihanak ere aski maite ditu.

EPHERRA. PERDRIX (la). — Eskual-Herrian ikusten dire oraino bi epher mota bederen, baina beldurtzeko da, urthe laburrik barne, batere ez dela gehiago ikusiko.

Lagunkina da epherra eta ez da maiz baxharrik ibiliko bere eremuetan ere.

Lehengo demboretan nun-nahi kausi bide zitakeen epherra, ezen bada kanta frango aiphatzen duenik: ezagutuena naski hau:

« Mendingo zoin den eder epher zango gorri,

« Ez da behar fidatu itchur'eder horri.

Dena dela mahaineko ez da choririk epherra baino gehiago bilhatua denik eta nola ez baitu bertzalde laborantzari kalte handirik egiten, hanbat gaichto da hola bakantzen ikustea!

EPHER ZURIA. GÉLINOTTE DES BOIS (la). — Izenetik iduri luke hegaztin hau arras zuria dela edo zuriskoa bederen. Ez. Azpian du baxharrik zuri phuska bat eta han ere zuri zikhinskoa. Mendietako oihanetan ikusten dugu maizenik. Arras jateko ona da epher zuria, baina egunetik egunerat galtzen ari da hau ere.

GALEPERRA. CAILLE (la). — Galeperra : horra izen bat hainitz eskualdetan gehiago aditzen ez dena. « Kalla » baino eskuarago litake bizkitartean galeperra edo gari-epherra. Zertako beraz ez oraino bat egin Eskualdun guziek izen eskuara nausi dadin izen erdarari ? Chuberoko herrihka batean « *lartaloa* » erraten omen diote galeper-rari, Constantin Atharratzeko jaun sendagin jakintsunak finkatu daukunaz. Harriet jaun aphezak bertze bi izen ere ematen diozka : « *pospolina* » eta « *parpara* ».

Guziek ezagutzen dute galeperra. Udan, ogipetik hain polliki kantaz ari delarik, ihiztariak maiz ondotik ditu. Neguan, Afrikan omen da.

Bihi bezenbat mamutcha jaten du galeperrak. Kasik ongi-egilea dela erran ginezake. Lurrean egiten du bere ohantzea edo maizago lurrean pausatzen ditu bere arroltzeak, batere ohantzerik moldatu gabe eta noiz-nahi laborariak adarrailean sega kolpe batez jotzen ditu ume gai-choak.

Ihizi gehienek bezala, iraganaldi batzu gaitzak egiten ditu galeperrak eta batzuetan hala errebelatzen da nun hirietako karriketari atcherman baititake orduan. Multzo osoak Baionako karrika ederrenean hola atcherman izan dire..... eskuz, arrunt hango berinek choratuak.


NAUDERRA. FAISAN (le). — Hegaztin handi eder bat da nauderra, luma urhe gorri hainitz duena eta guziz buztan choragarri batetik aise ezagutuko dena. Charetan ikusten da gehienik, hango lurra bustiskoa balinbada bederen. Lurrean egiten du hunek ere ohantzea. Mirakuilu da egunaz nauder bat zuhaitzaren puntan pausatzea eta halere gauaz han egiten du lo. Nork erran zertako ? Hegaztin hau ihizi-zaleek hemen gaindika ederki lakhet-arazten dute. Frogatu nahi duenak aski du itzuli bat egitea Jatxou Lurminttorat.


KARRASKA. RALE DES PRÉS (le). — Bakhotchari berea. Chori hau guk ere bertze hainitzek bezala erdi-erdaraz

« arrala » deituko ginuen, Uztaritzeko ihiztari hoberenatarik batek, Hiribarren jaun notariak, begiak ideki ez balauzku..... eta eskuarazko izena ikasi. Milesker, hemen.


Ez dugu batere nolakoa den erran beharrik: hainitz karraska bada gure eskualdetan. Bainan ihiztariari maiz behartuko zaio astia balinbadu, ezen zakur hoberenarekin ere ez da errech karraska altcha-araztea: artho eta haganetan luzaz gorderik ibiliko da, jo eskuin eta jo ezker, bere zango luzeen puntan. Udazkenean phisutzen da hargatik eta orduan lastertchago nekatuko da.

L. DASSANCE eta J. ELISSALDE.





ESKUAL-HERRIKO HEGAZTINAK ETA CHORIAK



SORHOPIL-OILOA — CANNEPETIÈRE (1a). Huna izen bat : *sorhopil-oiloa* : Diesse Itsasuko jaun erretorak emana. Izen huntarik aise ageri da nun kausi ditaken hegaztin hau. Aski larria da eta hain pisua nun Larramendik « *eganagia* » deitzen baitu. Batzuek « *bas-oiloa* » ere erraten diote, baina izen hori bertze hainitz moteri erraten baitzaio, Eskualdun ihiztariak nahi badute, har dezagun behingotz izen berria.

LARRE-OILOA-ÆDICNÈME — CRIARD (1'). Eskual Herriko ihiztariak ezagutzen dute segurki larre-oiloa, maiz hemen gaindi larre harritsuetan ikusten dutelakotz. Udazkenean beheretarat jausten da, chichpen menertago. Erran behar da hargatik larre-oiloak gaua maiteago duela bere harat-hunatatoko eta Jainkoak daki zer bideak egiten dituen jatekoaren ondotik : sagu, sagu-itsu, chori, igel eta mamu. Maiz bakarrik dabila larre-oiloa, baina lagunekin ere ikusten da noiztenka bederen.

URI-CHORIA — PLUVIER DORÉ (1e). Uri-choriari bertze izenik ere ematen diote han-hemenka : hala-nola « *moko-laburra* », « *lepabeltza* » eta bereziki « *kurlinka-lipia* » Ez othe litake ere « *urri-choria* » ongi errana, Urrian denaz geraz hunat chori hau agertzen ?

Chochoa baino aise larriago da uri-choria : azpiz zuriska, han-hemenka zafla horasta ilhun batzuekin. Iku-si gabe ere, hemengo ihiztariek oihutik aise ezagutzen dute.

Guilbeau jaunak « *puludoria* » erraten dio uri-choriari, baina guk erdara usain handiskoa atchematen diogu izen horri, bertzeak baditugularik, onhartzeko...

CHIRRIA-GRAVELOT (le). — Primaderan eta udazkenean baizik ez da gure itsas-hegietan agertzen chirria. Lepho-ko marra zuri batetarik errechki ezagut ditake. Uri-choria bezalatsu bizi da chirria.

ITSAS-EPHERRA — GLARÉOLE (la). Itsas-chori gehienak bezala zuriska da arruntean itsas-epherra. Lephoan badu marra mehe beltz bat, aise ezagutarazten duena. Den gutieneko bat lurreko epherra baino ttipiago ditake. Ez da mirakuiluz baizik itsasotik urruntzen. Iherika ederki badaki.

BLINTCHA-VANNEAU (le). — Neguan, mendiak elhurrez estaliak direlarik, blintchak ehunka zelhaietan ikusten ahal dire. Eta zoin pollitak diren beren kukuruchta luchearekin! Jateko ere hautak direla da errena :

Behinere blintcharik jastatu ez duzu ?

Jateko ona zer den beraz ez dakizu...

Maizegi, ordean, behere hautan hehur eta larru egiten da blintcha eta orduan ez dakigu zer behar zaion jan. Chichari, har eta chinaurri hainitz garbitzen omen du blintchak eta lan onik egin omen lezake baratzean, bizi-rik atchegan eta, bat bakharra han eman bagineza, hegalak moztu-eta, estekaturik. « *Egabera* » edo « *kiña* » deitzen dute gure blintcha mendiz bertzaldeko anaia gipuzkoar, bizkaitar eta napartarrek : Lapurdiko hegal batean « *minola* », « *miaua* » eta « *miaula* » ere erraten diote : « *azpichuria* » Bachenabarre neta Chuberon.

ITSAS-PHIKA — HUITRIER PIE (l'). Hurbil, lurreko phika bezen handia da itsas-phika : gorphutza bardintsu

du kolorez, bainan mokoia hainitz luzeago eta buztana hainitz laburrago. Zernahi machkur klikakoan iresten du. Nahi duen bezen hasarre izanagatik itsasoa, sekulan ez da handik urrunduko hegaztin hau.

KIRRIKOLOKA — TOURNE-PIERRE VULGAIRE (1e). Itsas-chori hau urthe guzietz Lapurdi huntan ikus dezakegu, primaderan eta udazkenean. Ez dabila maiz bakharrik, arras lagunkina baita. Hala-hala ez da kirrikoloka andana handi-handirik ere ikusten.


KURLINKA — COURLIS (1e). Eskuaraz eta erdaraz hegaztin hunen izenek segurki elgaren ahidesasun zerbeit badutelakotz, badire Eskuarak erdarari hartua diola finkatzen dutenak. Zertako ? Gure arabera bat eta bertzea hegaztinaren oihutik heldu dire eta erdadulnek bezen behari onak dituzte naski Eskualdunek ! Dena dela, ez da negu-aldean baizik hemen gaindi ikusten kurlinka. Arras beldurtia baita, ez da maiz tiroaren menean egonen. Ez da ere ur-erreketarik hainitz urruntzen. Iherika ederki badaki, Larrinuak dioenaz.

KULISKA-GORRIA — BARGE ROUSSE (1a). Ichtunetan maiz kausi ditake kuliska gorria. Badu azaiaren planta zerbeit, zango luze batzuen puntan, moko luze batekin. Larrinuak ez balauku izen hau eman, « itsas-azaia » behar lukeela izena erraterat ginoazin. Bainan nihork ez dio, hubiltzeko ere, lurreko azaiari egiten den begitartea eginen.

Ba omen dire bertze kuliska mota batzu ere : huna lerro lerro ; *negu-kuliska*, *corlieu* — *kuliska tutua*, *chevalier aboyeur* — *kuliska gorrista*, *barge commune*.

LOUIS DASSANCE eta JEAN ELISSALDE

(1) Bakotchari berea. Hemendik goiti hemen emanen ditugun hegaztin izen gehienak Larrinuaren liburutik harluak ditugu. Mila esker beraz liburu hori eskuratu daukun Donostiako jaun eskualtzale onari.



ESKUAL-HERRIKO HEGAZTINAK

ETA CHORIAK



AZAIA — BÉCASSE ORDINAIRE (LA). Zer den azaia gal-
detuko duteneri, Lapurdin «pekada» deitzen den he-
gaztin eder eta ona dela ihardetsiko dugu: Chuberoan
diote izen hori ematen. Ostibarren «*ollagorra*» deitzen
dute. Orobat, Gipuzkoan. Guziek badakite nolakoa den
azaia eta haurrek berek mokotik bederen ezagutzen
dute. Egunaz oihan eta charetan gordea dago: gauaz
phentzetan alhatzen da. Ihiztari guziek hori badakite,
bainan ez da ihizia haizu ilhuna jautsiz geroz. Badire
azaia gogorra dela erraten dutenak. Ez da hala, segurki.

ICHTINGORRA — BÉCASSINE ORDINAIRE (LA). Huna he-
men bertze izen bat frango Lapurtar bederen harrituko
dituena... gu harritu gaituen bezala. Chuberotarretarik
heldu zauku hau ere. «Pekardina» edo «pekachina»
erraten diote, erdi-erdaraz, ichtingorrari Lapurtarrek.
Agian ez diote hala erranen hemendik goiti «Gure Her-
ria-ri» esker.

Neguan baizik ez dugu hemen gaindi ikusten ichtingorra.
Norbeit hurbildu orduko, oihu samin bat eginik aira-
tzen da firurikan. Bihurrika urruntzen zaio ihiztariari:
horra zertako ez omen zaion tiroa ikusi deneko igorri
behar.

Gipuzkoako aldean « *mingorra* » erraten dute ichtin-gorrarentzat.

LEPOGORRIA — MAUBÈCHE CANUT (LA). Ez da primadera eta udazkenik gure itsas-hegietan lepogorriak huts egiten duenik. Hegaztin arin bat da, kasik ilabetetik ilabeterat jauntziz aldatzen dena. Lagunkina, ez da usu bakarrik ikusten. Machkur jale handia. Bada lepogorri mota bat baino gehiago, oro bat bertzearen idurikoak.

PERLISA — CHEVALIER GAMBETTE (LE). Marloinaren planta zerbeit badu perlisak, bainan elgarrekin deus egitekorik ez dute. Itsas-chorietan ez da hemen gaindi maizago ikusten dugunik, bereziki primadera alderat, bai eta udazkenean. Itsasotik, errekek gora, frango urruntzen da zenbeit aldiz hegaztin pollit hau.

IPURKOLOKA — CHEVALIER GUIGNETTE (LE). Martxotik Buruilerat ez du urtherik huts egiten ipurkolo-kak gure itsas-hegietan. Badabilkio ihiztari orduan ondofik, bainan ez da hurbil errecha, ez-eta ere, hurbil ondoan, hil errecha, sigi-sagaka baitabila airean. Ur hegiko har eta machkur jalea da ipurkoloka.

CHORI GERLARIA — CHEVALIER COMBATTANT (LE). Ez da baitezpada hegaztin hau maiz ikusten gure eskualdetan, bainan hartako doia ikusten da halere, primaderan eta udazkenean. Ez da uretarik behinere hanbat urruntzen, errebelatua ez bada. Primaderan bederen, haur batek aise ezagut lezake chori-gerlaria: moto bat bezala badu kaskoan, eta lepho gibelean luma eder handi batzu, beltz, churi, gorri edo urdin. Chori-gerlaria ez da kolpekatik gelditzen: lagunekin bethi joka, ez du kasik jateko ere astirik hartzen. Horra beraz zertako diogun hemen izen hori eman, ihiztari andana bati beren asmua galdeturik.

MENDEAL-CHORIA — PHALAROPE DENTELÉ (LE). Huna chori bat aski bakhan ikusten duguna hemen gaindi.

Halere badu eskuaraz bere izena, itsasturiek edo norbeitetek emana. Gainez beltza eta azpiz churiska da, hainitz itsas-chori bezala. Ainhara baino handichago. Itsasoa hasarre delarik, errekek gora, aski urrun ere batzuetan menturatzen da. Arrain ttipi frango garbitzen du mendealchoriak.

MOKO-BIHURRA — AVOCETTE (L'). Aise ageri datzertarik heldu zaion hegaztin huni Larriñuak ematen dion eskuarazko izena: mokotik. Hortarik da beraz bethi ezagutuko. Hegaztin zuri eder bat da moko-bihurra, salbu buru-gibel eta lephoan: hauk beltzak ditu.

Itsas-chori guziek bezala zango luzeak ditu: mokoa ere ba. Erran gabe doa, arrain, machkur eta ureko har mota guziak arras maite dituela.

UROILOA — POULE D'EAU (LA). Beltz beltza da uroiloa, chochoa baino larrichago, bethi urean edo ur hegietan. Iherika ederki badaki: pulunpatzen orobat. Ur hegietako belhar handietan egiten du bere ohantzea. Argi hastean eta ilhuntzetan atheratzen da gehienik. Jatekotzat bihia on zaio, bainan mamutcha eta arrainak ere ba. Urthe buru batetik bertzerat uroiloa ikus ditake hemen gaindi, salbu negu arras hotz batzuetan. Norapeit aldaratu nahi duenean, gauaz nahiago du bidea egin, airez baino mai-zago urez. Badire eskualdeak uroiloa mehe dela erraten dutenak: « *summa regula sil consuetudinem alque praxim limoratorum in diversis regionibus observare* », dio Bulot delakoak.

Bada uroilo bat hau baino hainitz larriagoa: erdaraz « le foulque » deitzen da. Aldiz, eskuaraz uroila ttipia deitzen dugunari, « le râle d'eau » erraten diote frantses erdaraz.

LERTSUNA — GRUE CENDRÉE (LA). Lertsunak kaskoan eta begien inguruan ez du hamarik. Hemen gaindi ez da maiz hegaztin handiagorik ikusten. Negu hastean,

lerro-lerro-lerro, ikusten dugu andana ederrik, kru-kru eta kru-kru zeruetan doazila. Bardin ibilki dire gauaz. Hargatik, arras unhatuak edo errebelatuak ez badire, ez dire gure herrietan hainitz gelditzen. Suge jale handiak dire lertsunak. Amikuzen «*kurlia*» diote erraten: eta Chuberoan «*kurullua*».

Lertsun bat, hutsantua (empaillé) bederen, ikusi nahi duena, doala Larresoro Gaztelurat: han bada bat. Guk ere ez dugu egundaino bertzerik ikusi... lurrean.

AMIAMOKOA — HÉRON (LE). Gorphutz handi bat zango luze batzuen gainean: moko luze bat lepho luze baten puntan: kaputchino batek bezenbat bizar baphoan: horra amiamokoa. Bat edo bertze ikusten da kukuruchtarekin ere. Maiz ur-hegietan kausitzen da, zer-nahi igel, mamutcha eta arrain jaten duela. Sugea ere arras maite du eta hain maite nun Erdaldun jakintsun batek erraten baitu, sugea arras nausi lakigukela lurrean, amiamokorik ez balitz. Amiamokoa kolpatua delarik, ez da zuhurtzia hari hurbiltzea. Ihiztari frangok, beren gostuz ikasirik orai badakite. Badire amiamoko zuriak eta badire gorrastak. Zuriak ez dire gure eskualdetarik behinere aldaratzen. Gorriak ere urthe gehienez agertzen zaizkigu hunat, bainan chuhurki.

ZEZEN-CHORI TTIPIA — BLONGIOS NAIN (LE). Amiamoko mota bat da zezen-chori ttipia, uso larri baten heinekoa. Gure eskualdetakoa da arras, bainan ez da andana handirik. Amiamokoa bezala bizi, arrain, igel, mamutcha eta sugez.

ZEZEN-CHORIA — BUTOR ÉTOILÉ (LE). Zezen-choria ez da behinere gure eskualdetarik urruntzen. Hargatik ez da ere hainitz zezen-chori. Luma gorrasta du arruntean, beltz chirrista batzuekin. Arrain jale handia, urean sartu eta mugitu gabe oreinak egoten da, zerbeit menerat ethorriko zaiolakoan.

BURIOA — CIGOGNE (LA). Ez da segurki burio hainitz ikusten gure eskualdetan : bakar zenbeit bai halere eta ez du dembora handi-handirik gure begiez pare bat ikusi dugula igande arratsalde batez. Uztaritze Hiribehereko plazan lau pilotari ederreri beha ginaudelarik. Ezagut errecha da burioa bere moko luze gorritik eta baphoko bizarretik. Lehen ere baginakien nolakoa zen, gerla ondoan Alamaniako mugetan asko eta asko ikusi baitugu.

Ainhara bezala, bethi toki beretarat itzultzen da burioa eta urthetik urtherat hegaztin hau ikusten duten herrietan bekatu zaiote kasik zerbeit min egitea. Berriberitan Bordaleko egunkari batean irakurtzen ginuenaz, badire auzaphezak horiek unkitzea debekatzen dutenak, berbalik nahi ez bada. Dorre gorenen puntan egiten du bere ohantzea burioak. Hainitz mamu gaichto, igel, apho eta suge garbitzen omen du.

PIRTA — PETIT PLONGEON (LE). Urthe buru batetik bertzerat pirtak ikus ditazke gure Errobiaren (1) hegietan. Norbeit ikusi orduko, pulunpatuko da eta den urik zabalena iraganen du azpiz-azpi, gehiago agertu gabe. Zuriska da, chochoa baino ttipichago, zango mehar eta moko luche batzuekin. Ureko mamu eta arrainak on zaizko.

MOKO-ZABALA — SPATULE BLANCHE (LA). Hegaztin larri zurizka eta zango luze bat da moko-zabala, udalderat noizean behinka hemen gaindi kausi ditakeena. Itsashegitik ez da behinere hainitz baztertzen. Hegaztin huren izenak berak irakusterat ematen du zoin errecha den ezagutzeko : mundu guzian ez da bertze holako mokoa duenik. Gipuzkoan « *trulla* » erraten diote.


LOUIS DASSANCE eta JEAN ELISSALDE

(1) Errobia : La Nive. (G. H. n° 1 Dar). Scribit Nivum lingua vascitanu Errobi appellari. — L. Coulon).



ESKUAL-HERRIKO HEGAZTINAK

ETA CHORIAK



BROKUA. — FOU DE BASSAN (le). — Nahiz ez den gure itsasoan negu min-minean baizik agertzen, itsas-chorietan guti da bokua baino ezagutuagorik. Han-hemenka bardin deitzen dute *broina* eta *zanga*. Zuria da eta arras zuria hegaztin hau, salbu hegaletako luma handiak beltzak dituela. Ahatearen planta handia badu, baina zenbat handiago! Zer-nahi arrain garbitzen omen du brokuak : guzien doia izanen da halere!

Broku bat, bizia, gure begiz ikusi du gu eta gure eskuz unkitu Donostian « Museo Maritimo » deitzen den biltokian. Gu hurbiltzearekin, etzen haren karrankaren parerik...

ITSAS-BELEA — CORMORAN ORDINAIRE (le). — Itsas-beleak iduri du kasik ahatea, mokotik hasirik zangoerhietako telaraino. Handichago da bizkitartean eta kaskoan badu kukurusta ttipi bat. Gainez beltzkoa : azpian baluke kasik pherde gehiago. Eskualdeka itsas-belea bezala erranen diote *uharroia*, *ubarroia* edo *bolboriña*. Bethi itsasotik hurbil egiten du ohandzea, harroketan edo bardin zuhaitzetan. Hiruzpalau arroltze erruten ditu : zuri pherdeskoak dire arroltze horiek. Aski ongi etchekotzen da itsas-belea.

Ba omen dire itsas-gizonak guziz Chinako eskualdetan,

ederki arraintzan itsas-beleak ar-arazten dituztenak, baina acheman arraina klikakoan irets ez dezaten, lephoan, tinko-tinkoa erraztun bat ezartzen diote. Arraina zintzurretik khentzea aski dute orduan. Gogoratzean da guzia : hemengo arraintzaleeri ez zaiote behinere egin.

Bada itsas-bele mota hainitz, baina mirakuilu da hemen aiphatuaz bertzerik gure eskualdetan ikustea, *Preslal* jaun jakintsunak dioenaz bederen.

GALERNA-CHORIA. — **THALASSIDROME** (le). Chori huni itsasturiek bardin erraten diote *ekaitz-choria* edo oraino *debruchka* eskuaraz, erdaraz *Salaniques* bezala. Galerna-choriak iduri du ainhara. Maiz itsaso zabalean bizi da eta ez da hegiatarat hurbiltzen galerna handi-handien ondotik baizen. Hortarik izen hau.

Itsasturien arteko erran baten arabera, — eta tieso finkatzen dutela gero! — galerna-choriak ez omen dire egiazko choriak, baina bai arimã herratu batzu : beren untziak galdu dituzten kapitainen arimak. Ez da beraz harritzeko bat eskuratzen dutelarik itsasturiek, mila phuska egiten badute! Gaicho choria! Eskutan behin galerna-chori bat ibili dugu eta guri etzauku deusik iduritu!

MARLOINA — **GOÉLAND RIEUR** (le). — Hemen goiti erdaraz « mouette » erraten diote marloinari. Eskualdun gehienek ezagutzen dute : hegaztin zurisko bat, usoaren heintsukoa, itsasoa hasarre delarik gure errekek gora heldu zaukuna, jaki baino hainitz luma gehiagorekin horra marloina. Iherika ederki badaki : orobat pulunpatzen. Arrain jale handia. Arras lagunkina. Larruñak « *antchela* » erraten dio marloinari, baina handiago da phuska batez antcheta. Gipuzkoako aldean « *egachuria* » ere deitzen omen dute.

KAIQA — **GOÉLAND MARIN** (le). — Gure itsas-hegietan

urthe buru batetik bertzerat guti edo aski ikus ditake kaioa, baina udazkenean dire bakarrik andana handiak agertzen. Berenaz iphar-aldeko hegaztina da kaioa, marloinaren mota beretik. Arrain jale handia hau ere.

ANTCHETA MOKO BELTZA — GOÉLAND TRIDACTYLE (le). — Marloina eta antcheta aise har ditazke bat bertzearentzat : hau, hura baino larriago da hargatik eta marloina ez bada behinere gure eskualdetarik mugitzen, antcheta udan aise badoa iphar-alderat.

Lañoki aihortzen dugu ez ginela ohartuko, bertze hainitz baino gehiago, marloina eta antcheta egiazki bi hegaztin direla, Ondarrabiako itsas-gizon zahar batek ohart-arazi ez bagintu. Beraz, milesker, gizajoa!

ABISOIA. — GOÉLAND ARGENTÉ (le). — Marloinaren mota beretik da abisoia ere, motako hegaztin handiena. Udazkenean dugu gehienik hemen gaindi ikusten nahiz bertze sasoinetan ere frango ikus dezakegun. Itsasoa hasarre denetan, Santizpiritetako zubiraino zenbat ez dire egun hautan ere hurbiltzen, nork igorriko dioten ogi pichka bat! Bere moko horitik aise ezagutuko dire.

ITSAS-AINHARA — STERNE PIERRE GARIN (le). Kaskoa eta lepho gaina beltzak ditu itsas-ainharak : bizkarra hauts kolore eta azpia churi. Lurreko ainhara baino hainitz larriago da : mokoia ere hainitz luzeago du eta azkar-rago. Ez da guti baizik itsasotik baztertzen. Udan eta neguan ez da hemen bizi, bai aldiz primaderan eta udazkenean. Badire bederatzi itsas-ainhara mota : hau da hemengoena.


BELTCHARGA — CYGNE SAUVAGE (le). Antzararen itchura zerbeit baluke beltchargak, baina hainitz handiago da eta lephoa ere phuska luzeago du. Ura lakhet zaio eta erran ditake han bizi dela. Eta zer igerikari pol-

lita den! Hargatik ez da batere pulunparia eta miletan nahiago du bere lepho luze hura urean sartuz jatekoa bildu. Ez da neguko hotz min-minetan baizik hemen gaindi ikusten.

Arras etchekotzen da beltcharga. Bada-eta mota bat etchetan baizik gehiago bizi nahi ez dena! Hegaztin zuri ederragorik munduan ez da ikusten.

Uztaritze Contourloenean pare bat atchiki dute aski luzez, baino ihiztari lautsu batek hil ziozkaten Errobia hasarrean zen egun batez, ustez-eta basa-antzarak zituen...

LOUIS DASSANCE ETA JEAN ELISSALDE.





ESKUAL-HERRIKO HEGAZTINAK

ETA CHORIAK



ANTZARA. — OIE SAUVAGE (1'). — Nor da hemen gaindi antzara edo « *basa-antzara* » ezagutzen ez duenik ? Negu guzietan dugu behinere huts egin gabe. Eta Eskualdun ihiztarietan othe da bat edo bertze hil ez duenik ? Hain hurbil-errecha da urean arrainen ondotik dabilalarik edo phentzen erdian alhan dagoelarik antzara ! Eta gero hain pisua da, ihiztaria gainerat heldu zaiola ohartu-eta, berritz airatzeko !

Ahateak badire kolore guzietakoak : antzarak aldiz oro ilhunkarak dire : arra baino ttipichago emea. Antzarak mokoan badu marra horasta zabal bat : haurrek ere hartarik ezagut dezakete.

Badire bortz antzara mota bederen, erdaraz beren izenekin. Eskuaraz izen bera dute guziek, gure jakinean.

MURGIL-AHATEA. — SOUCHET COMMUN (1e). — Huna ahate mota bat, negu guzietan ez bada, gehienetan bederen Eskual-Herriko itsas-hegian eta erreka larriskoetan ikus dezakeguna. Zertarik ezagut ? Mokotik, puntan moko gaina behera baino hainitz zabalago baitu. Udako, eskualde hotzetarant joaiten omen da.

AHATEA. — CANARD SAUVAGE (1e). — Badire ahate huni

« *ahale española* » erraten diotenak : ez dakigu zertako. Gutiz gehienek « *basa ahalea* » deitzen dute. Etche ahatea huntarik heldu dela ez da dudarik.

Ez dugu batere erraiterik nun eta nola bizi den : orok badakite hori guk bezen ongi, negu guzi-guziez hemen gaindi ikusten dutelakotz.

AHATETIPIA. — SARCELLE (1a). — Badakigu : ahateti-piari gehienek « *cherchela* » erraiten diote, baina izen horri erdara usain handiskoa atchewan diogu hemen hartzeko, egiazko izena utzirik.

Badire bi ahatetipi mota : bat negu guzia hemen dago, bertzea primaderan eta udazkenean baizik ez da agertzen.

AHATE FRANTSESA. — CANARD SIFFLEUR (1e). — Zertako diote Eskualdunek izen hori ematen ahate huni ? Ez dakigu. Ahate hau ez da bertze zenbeit mota bezen maiz Eskual-Herrian ikusten. Behinere ez dabila bakharrik : andanaka bethi. Ahate española baino ttipichago ditake : ahotik ezin utzia... omen. Hainitz eskualdetan ahate huntarik ortziraletan janen dautzute, mehe dela.

EKAITZ-AHATEA. — CANARD TADORNE (1e). — Kaskoa eta lepho-gaina pherde-pherdeak ditu ahate mota hunek, gero marra zuri zabal bat, eta marra zuri hunen ondotik bigarren marra bat, gorria. Hortarik ageri da zoin eza-gut errecha ditakeen ekaitz-ahatea.

Gure eskualdetan baino bizi nahiago omen du ipharaldean. Arras aise etchekotzen da mota hau, diotenaz.

AHATE MOTODUNA. — FULIGULE MORILLON (1e). — Itsasotik frangotan urruntzen da ahate motoduna : horra zertako ongi ezagutzen duten Eskualdun ihiztari guziek. Baina negu mina ez bada, ez du balio ondotik ibiltzea : nihun ez da agertuko.

AHATE BELTZA. — MACREUSE NOIRE (la). — Itsas hegian negu guziaz ikus ditake ahate beltza: noizean behinka erreketan gora menturatzen da. Izenak berak irakusterat ematen du arras beltza dela ahate hau. Bizkitartean, emea arintehago omen da kolorez.

Haragi gizen bat du, olio usain batekin. Ez da beraz harritzeko begitarte handirik ez badiote egiten hiriko merkatuetan.

ITSAS-OILO MOTODUNA. — GRÈBE HUPPÉ (le). — Bi kukuruchta^o beltz baditu itsas-oilo hunek, nun-nahi ezagut-araziko dutenak. Zangoetako erhiak tela batez lotuak ditu erditaraino. Arras negu borthitzetan baizik ez dugu gehiago hemen gañdi ikusten. Baina bat ikusi nahi duenak aski du guk bezala ager-aldi bat egitea Baionarat, « Musée d'Histoire Naturelle » delakorat: bat han bada duela 35 urthe Endaian atchemana.

CHILIPORTA. — GRÈBE CASTAGNEUX (le). — Itsas-oilo mota bat da chiliporta ere, baina bospasei mota baitire, hau da orotarik ttipiena. Gure eskualdetarik ez da aldaratzen urthe buru batetik bertzerat. Gutiz gehienek ezagutzen dute beraz eta badakite nolakoa den, hemen errateko beharrik izan ez dezagun. Aski hurbil-errecha da. Zer, aski hurbil-errecha? Arras hurbil-errecha ere da, ezen gure adiehkide batek, J. P. Hiribarren orai Metzikon denak, egun batez biga hil izan ditu, halako ihiztaria ez delarik. Beha beraz...

Puiauta. — PLONGEON CAT-MARIN (le). — Neguan nun-nahi ageri da puiauta, gure erreketan aski gora menturatzen baita. Badire ihiztariak aski ondotik ibilki zaizkonak, baina edergailutzat hobe da mahaineko baino. « *Gabar-rasa* » erraten diote puiautari eskualde batzuetan.

POTTORROA. — GUILLEMOT (le). — Pottorroak badire

bi mota, erdaraz bigak beren izenarekin. Burua oiloek bezalakoa dute bi motek, eta gorputza zangoetako telaraino ahateek bezalatsukoa. Arras ezagut-errechak dire beraz. Neguan ikusten dire gehienik gure itsas hegietan.

ZABAL-MOZUA. — **MACAREUX ARCTIQUE** (le). — Eskuarazko izen hau Donostian kausitu ginuelarik, bat jada baginion geronek emana hegaztin huni: « *chori serora* ». Eta, egia erran, serora bat iduri du bere lumazko kaputcha pollitarekin. Geroztik ohartu garenaz, ez ginuen gure izena hain gaizki hautatua ere; zabal-mozo mota bat badenaz geroz erdaraz « *macareux moine* » erraten diotena.

Hegaztin hau ez omen da Eskual-Herritik behinere urruntzen: ez da beraz harritzeko eskuarazko bere izena balinbadu.

Arraintzaleek, makaela hartzeko sareak hedatu-eta, hainitz zabal-mozo atchematen dute, guziz Bretaniako itsasoan. Ez da beraz erneenetarik hegaztin hau. Mokotik aise ezagutuko dute orok.

MARTINA. — **PINGOUIN COMMUN** (le). — Zabal mozua-ren p'anta zerbeit badu martinak, guziz mokoan. Hortarik ezagutu beharko da hau ere. Gure itsas-hegietako hegaztina dugu segurki martina. Zabal-mozua bezen maiz sareetarats heldu zaiote arraintzaleeri.

Ondoko solasa

Hegaztin eta chorien sail luze huntan badire zenbeit izen bazterrerat utzi ditugunak: hala-nola *gau-ainhara*, *hegazterrena*. Zertako? Gau-ainhara, bere hegalen gatik ez delakotz chori bat, eta hegazterrenak, ez delakotz hemengoa, ez baitu eskuarazko izenik. Hau zer othe du bada? Hau, Larramendik bere burutik atheratu nolaz-


peitko izen bat : hegazti ederrena : le paon. Uzteko hobea beraz. Denik ere *Santelen choria*, le bengali, behar ginuke aipatu, kaiolaren barnean arras hemengotzen baita.

Ez da dudarik bertzalde, hainitz eta hainitz izen ez dugula atchewan, ibili ditugun mila urratsen gatik. Agian; gure ondotik, Eskuararen amodioz, norbeitek bilduko ditu eta Eskualdunek eskerrak bihurtzen ahalko diozkate. Holako lanari lotzen dena, ez da lan tippiari lotzen.

Horiek oro hola, ez ginuke gure lana bururatu nahi berritz ere milesker handi-handi bat erran gabe bihotzaren erditik huntan zerbeit gisaz lagundu gaituzten guzieren. Bainan nihor ez ahanzteko, nihor ez dugu izendatu nahi. Milesker ere gure lan hunek atsegin egiten ziotela jakinarazi daukuteneri. Hek izan ez bagintu, nork daki ez ginuen bidez-erdi etsituko !

Dena dela, lan hau, guk ahal dugun heinean, akhabo izan dadien, « *Gure Herriak* » ondoko egunetan lerro-lerro agertuko ditu gure chori eta hegaztin guzieren izenak, bakotcha bere motak galdetzen duen lerroan.


LOUIS DASSANCE eta JEAN ELISSALDE





ESKUAL-HERRIKO HEGAZTINAK

ETA CHORIAK



HALA EZ denari lehenbailehen behar zaizko hegalak moztu... hegaztinez eta choriez doalarik bereziki. Horra zertako dugun egungo hitz hau — agian azkena da! — igortzen « *Gure Herria* » maiteari.



Bada, 1925 eko Otsailean, alaudez mintzatu ginelarik, herritar hañitzen erranari fidaturik, hala ez den gauza hau erran ginuen, « *chorietan ez dela goizago kantaz haslen denik.* » Bertzalde, guk bezala, erdaldunek ere badute uste hori eta noiz nahi adituko diozute, « *il se lève au chant de l'alouette.* »

Egun guziz zerbeit ikasten du gizonak : ez omen da erran zahar hori baino gezur handiagorik. Orai duela ehunbat urthe jakintsun bat baitzen, Dureau de la Malle deithua, erran ditake nihor ez dela hegaztin eta chorien jakitatean trebeago. Hogoita hamar urthe handiz, arratsean zazpi orenetan chuchen oherat joanik, gauerditan jeiki izan da berak frogatuaren gainean mintzatzeko. Eta orai, huna zer dion jakintsun horrek : lehen choria oren bat eta erdiri buruz hasten dela kantaz eta chori hura dela ... ttorrotta (le verdier, erdaraz ; ligurinus chloris, latinez).

Oren bat eta erditarik goiti hasiko da neguchoria (le pinson ; fringilla cœlebs).

Bigetarik hirurak artean adituko dire mertchika-choria (le bouvreuil ; pyrrhula vulgaris), burubeltza (la fauvette à tête noire ; sylvia atricapilla), galeperra (la caille ; coturnix communis), hiligarroa (la grive ; turdus musicus), eta papegorria (le rouge-gorge ; rubecula familiaris).

Lauak alderat hasiko da, bainan zoin choragarriki, chochoa (le merle noir ; turdus merula). Chochoarekin bateantsu, buztangorria (le rossignol des murailles ; rutililla phœnicura) eta ulichoria (le pouillot ; philopneustes trochilus).

Alferrago dire elizachoria (le moineau ; fringilla) eta sagartchoria (la mésange ; parus).

Eta alauda (l'alouette ; alauda arvensis) beraz ? Behinere etzaio argiari aintzinduko, ttorrotta bezala. Aro ederra balinbada aski goiz hasten da, bainan ordukotz aspaldi bazterrak inharrosten ari dituzte bai neguchoriak bai chokak (la linotte ; cannabina linotta).

L. DASSANCE eta J. ELISSALDE

